

GEU ELKARTEAREN BABESAREKIN

GASTEIZ

Elkarrizketak

Bingen Mendizabal
Juanjo Mena
Aintzane Guridi
Paka

DENOK ARAIARA

Euskal Unibertsoa eta kirola

XABIER MONTIEL / GFU ELKARTEKO PATZORDEKIDEA

A ski ezagunak dira gure artean zenbait kiroletan gasteiztarrok poltsikoratzen ari garen lorpenak eta, honen ondorioz, ospatzen ari diren milaka harrera, hitzaldi eta elkarrizketa. Gure zorionerako oraindik dena ez da amaitu eta... eromena!, hitz bakar batean... EROMENA!; futbola, saskibaloia, errugbia, maratoiak, gimnasia erritmikoa, Himalaya... Arabarrok nonahi eta goi mailako zerrendetan gaude. Dударik gabe urte hau ahaztezina izango dugu denbora luzean, baina "behi potoloen" garaia dastatzeko niri behintzat osagarri garrantzitsu bat aipatzea egokia iruditzen zait: Euskara ere punta-puntako ospakizunekin batera egotearen beharrarena.

Gasteiz txikia da, hobeto esanda, oso txikia da eta euskaraz moldatzen garenon kopurua txikiagoa oraindik, baina gero eta gehiago gara etengabeko hazkundera. Hala ere, euskarak oso esparru gutxi irabazi du gure gizarte disglósiko honetan eta kirola, oraindik, kanpoan dago nabarmenki.

Egia da aurrerapauso txikiak ematen ari direla Tau-Baskonia eta Alavesen kasuan, baina hauek xumeak eta eskasak direla azpimarratu beharko dugu. Megafonian oraindik eta klubek atera ohi dituzten aldizkaritxo edo orri informatiboetan euskaraz ematen den informazioaren hutsunea nabaria da.

Klub hauetako bazkideek lau haizetara zabalitzen dituzten kantuetako asko euskaraz izaten

dira, eta etxetik kanpo dituzten bidaletan kantuak identitate-formula bailiran erabili egiten dituzte gehienetan. Jarraitzaile eta ikusle gazte gehienak "Euskal Unibertso" honetako izaki aktiboak dira dagoeneko, baina islada eskasa izaten du euskararen erabilpenak klubetan aldetik. Nire ustez "Hirukoa" esatearekin edo Alaves-en taldekide-zerrenda euskaraz aipatzearekin bakarrik ez dugu egoera konpontzen, nahiz eta lehen aipatu dudana bezala, ahaleginak egiten ari direla aitortu. Oraindik egon badaude gauza asko egoera normalizatuz joateko: karnetak, publizitatea, prentsaurrekoak, argitalpenak, iragarkiak eta bar...


GEROA LANDU BEHARRA! Gasteiz euskaldun batean sinesten dugunok ezin dezakegu egoera hau besterik gabe pasatzen utzi, eta kirol mailan gure talde eta jendea zoriontzarekin batera, egoera normalizatu batera abiatzea jarriko dugu helburu. "Harrobia" behar bezala zaindu eta gasteiztarren errealitate eta nahietan arreta jartzeko eskatu behar diegu gure goi-mailako kiroletako arduradunei. Kirola pil-pilean dago gure hirian eta ezaguna da adin gutxiko neska-mutilengan imitazioz hartzen diren ereduak duten eragina. EZ DEZAGUN AUKERA GALDU!

Bidea irekita da eta denon laguntzarekin egun zoriontsuagoak bizitzeke daude.

Zorionak, Gasteiz! Zorionak, Araba!

Naturaren isladak

MIROTZ ZURIAK (CIRCUS CYANEUS)



66. ZENBAKIA. 1.998KO EKAINA.

GEU GASLEIZ, Gasleizko
Euskaldunen hilabetelearia

ERREDAKZIOA:

Pedro Asua, 2 - 3.a
Telefonoa eta Faxa: 22 21 53

ZUZENDARIA:

Eslibu Breñas Glez, de Zarate.

ERREDAKZIOBURUA:

Asier Dz. de Karkame.

ERREDAKZIOA:

Leire Lopez de Aberasturi, Ismael Diaz
de Mendibil, Txabi Arnal-Gil, Raul
Saez de Buruaga, Itziar Uriarte.

ARGAZKIAK:

Ederla Sanz.

MAKETA:

Galzaqain Argitarapenak.
Telefonoa: 970 40 18 46

INFOGRAFIA:

Alex Badillo.

KOMIKIA:

Inigo Sarasola

NATURAREN ISLADAK:

Conrado Tejado.

KOLABORATZAILEAK:

Asier Iriando, Ion Maia, Inaki
Martinez de Luna, Ainhara
Zuazabeitia.

PUBLIZITATEA:

Karlos Fdez. de Beloño.

BANAKETA ARDURADUNA:

Txipi Ormaetxea.

INPRIMATEGIA:

Gerlu Keep, E. (Zubillaga, Oñati)

ALE KOPURUA:

2.500

LG: VI-582/92

ISSN: 1133-0988

Franko Hundua 48/27 zenb.

ALDIZKARI HAU PAPER
EKOLOGIKOZ EGINA DAGO

Geu Gasleiz hilabeteleariak
ez du bere gain hartzen
berten adierazitakoen erantzunkizunik.

ELKARRIZKETA

Estatuan hain-
bat filme atondu
ostean Bingen
Mendizabal
Hollywooden
izan da



16
ORR.



24
ORR.

Denborak The Rolling Stonesen
alde egiten du.

MUSIKA

aunkibidea

iritziak

31 Jon Maia

Manolo el del bombo....

34 Asier Iriando

Alaves orimenean bizirik.

laburrak

6 Euskara

Zorionak, Ikasbidea

10 Besteak

Txapeldunak.

elkarrizketak

16 Bingen Mendizabal.

Arabako musika Hollywooden.

kirolak

18 Urpekariak

Itsas azpiko abenturak.

19 Botepronton:

Paka, Alaves-zalea.

erreportaiak

12 Gizartea

Hamar urtez Gaztebe.

Gehigarria

Araba Euskaraz 98.

kultura

22 Artea

Elkartasunezko hormak.

24 Musika

Denbora The Rolling Stonesen alde.

26 Gaurkoak eta betikoak:

Lutzen, Sasoi Ilunak, Etzakit.

27 Agenda

Ekaineko kultur ekitaldien zerrenda.

ohikoak

4 Bertsoa

Santa Barbara azoka

Euskararen termometroa

5 Kalea mintzo

11 Geurekin mendira

28 Piti-pata

32 Komikia



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Sailak
diruz lagunduriko aldizkaria

bertsoa

Gasteizko bertso eskolaren eskutik

IZENA: AITZIBER PZ. DE KARKAMO

ADINA: 18 URTE IKASTOKIA: KOLDO

MITXELENA INSTITUTOA

IZENBURUA:

AZTERKETA GARAI

DOINUA: MUTIL KOXKOR BAT

Egun hauetan somatu ditut
hodei artean izpiak
giro beroa dakarten horiek
goxoak bezain eztiak
"uda partean sartzeaz gaude"
esan digu eguzkiak
baina denentzat hauek ez dira
nahi bezain garai alaiak
ikasi behar duten horientzat
nire animo guztiak.

Garai honetan ikasle askok
egin dute kalkulua
zenbat ikasgai zenbat denbora
"ene ze une estual"
dagoeneko hasia dute
lan eta apunte jokua
momentu latzak ditugun arren
jarri behar da gogua
orain egindako lan gogorak
emango baitu fruitua.

santa barbarako azoka

Agurrak, saldu edo erosi nahi duzuna... idatzki postazi:
pedro asua, 2. 3.a faxa. 22 21 53

SALTZEN DUT

Larruzko kazadora bat sal-
tzen dut. Heavy edo punky
batentzako aukerakoa. Taila
40, berri-berria dago.
Jantzia nahi baduzu deitu

13 27 58 Espe
(9etatik 10 etara)

Vespa 200 - Iris salgai.
80.000 pezetan bakarrik

14 54 90 Iñigo

DEITZEN DIZUT

Oniko osasun sistemam ase-
tzen ez bazaituzte, zaitoz
Sumendi osasunaren auto-
gesticaren aldeko elkartera

22 65 03

Ez hago bakarrik!! Hator Gay-
tasunara. Informazioa, hitzal-
diak eta eztabaidak, psiko-
logi, sexologi eta lege aholku-
laritza... Bilerak asteazkenero.

25 77 66

Gasteizko Esperanto Elkartea.
Hizkuntza bikaiak maite ditu-
gulako, esperantoz mintza-
tzen gara.

Zapatari kalea, 29

Ikusten duzuen pixka-
naka txoko hau informa-
zioz betetzen goaz. Ora-
indik, orde, zuen lagun-
tza behar dugu orrialde
hau guztiontzako bali-
garria izan dadin.
Ez dago mugarik, zeuek
nahi duzen guztiak du

lekua hemen. Saldu
edota erosi nahi duzue-
na, agurrak, deiak,
zoriondu nahi dituzuen
lagunak, eta beste edo-
zein mezu lerro hauetan
ezarri nahi baduzute,
bidali honako helbide
edo faxera:

Geu Gasteiz aldiakaria
Pedro Asua kalea, 2. 3.a
faxes: 22 21 53

PREMIAZKO TELEFONOAK

S.O.S. DEIAK:	088	AUTOBUS GELTOKIA:	25 84 00
UDALTAINGOA:	092	RENFE:	23 02 02
INFORMAZIOA:	010	AIREPORTUA:	16 35 91
SUHILTAILEAK:	16 11 11	ERREPIDEETAKO INFORMAZIOA:	28 20 00
GURUTZE GORRIA:	22 22 22	HIRI-BABESA:	16 11 61
D.Y.A.:	28 10 20	UDALETXEA:	16 11 00
ERITXEETAKO URGENTZIAK:	24 44 44	FORU ALDUNDIA:	18 18 18

hozkatiluan

San Martin Abendañoaren Osasun-
Zentroko kartelak euskaratu zituenak
ondo baino hobeto egingo du lo
ziurrenik. Ez du, agian, inoiz ginekoko
edo ginecologora joan beharko, ezta
aurrentzako gimnasilekura, edota
erizantz zuzendaritzara ere. Osasun-
zentroko kartela bera ere ez zuen egoki
diseinatu. Gixajoa! Sendatuko ote?



Abokatu euskaldunen gaia gori-gorian
dugun honetan pozez betetzen gaitu
gure hirian holakoak ikusteak. Joseba
Oria du izena, abokatua da eta baita eus-
kalduna ere. Ez da bakarrik, baina lanbi-
de horretan euskaraz jardun dezakete-
nak ez dira asko.

Irudian agertzen den kartela Abenda-
ño kalean aterata dago, Oriaren bulego-
ko sotoan.



Zeppelinak, lekuz kanpo / Iñigo Kaslerena

Arabako lurraldean zaindaria omentzeko eguna, arabar guztion eguna da
nonbait. Fededun nahiz fedegabeko arabarren eguna, hain zuzen ere. Lerro
hauek zirriboratu dituenak ez zuen begi onez ikusi ezta gogoz hartu ere, aur-
tengo San Prudentzio egunean jazotakoa.

Trebiñoko auzia
gori-gori dugun hone-
tan, Burgosko Aurrezki
Kutxak Armentian
globo-zeppelinak denon
ikusgai ezartzei ez
deritzot zuzena ezta
egokia ere.

Nor ausartzen da,
egun, aurpegia gorritu
barik, trebiñarrei de-
mokratian bizi direla esaten? Jakitun nago Araban Gaztelako seme-alaba anitz
bizi dela; baina ez dut uste gehiengoak Lucas jaunarekin bat datorrenik (edo
hala uste dut nik bederen). Gurean bizi diren burgostarrei dagokie ere beren
pentsamoldeak argi eta jendaurrean azaltzea. Arazoa ez baita Argantzun eta
Trebiñoko lagunena bakarrik, geure probintzia osoko biztanleena baizik.

Berdin zait norberaren jatorria, Araban biziz gero, Arabako askatasunaren
alde egin behar dugu. Burgosko Aurrezki Kutxako zuzendaritzak ere bai!



fotonotzia

termometroa

sutondoan

ardatz itzulpen eta
euskara zerbitzuak

Arana kalea, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ

GORETTI
ILEAPAINDEGIA

Hedegile (KORRE), 14 Mikel Deunaren Pasabidea
Tfno: 12 08 88
01001 - GASTEIZ

kalea mintzo

TESTUAK: NAGORE ZEBERIO ARGAZKIAK: ANIA IBISATE



AINHIZE GUTIERREZ

1.- Beharrezkoa da gaixotasuna eta ezbeharrak sendatzeko. Gaurregun emaila eta hartzaileak oso kontrolatuak daude eta ez dago inolako arriskurik.

2.- Gehiena beldurra da. Jende gehienak ez ditu xiringak gustuko.

1.- Zer diozu odol ematearen gaiari eta honek duen garrantziari buruz?

2.- Zeintzuk uste duzu izan daitezkeela jendeak odolik ez ematearen arrazoiak, ezintasunaz gain?

ODOLA

Konturatzen ez bagara ere, bizi dugun gizarte aurreratu honetan, badaude gizakiaren esku dauden arlo asko, ordaindu ezin diren esfortzuei esker aurrera ateratzen direnak, hala nola odol ematearen gaia. Ez da ez jende kopuru handia horren guztiaren atzean besteei laguntzeko prest dauden pertsonak daudela ikusten dutenak, istripu larri bat izaten den bakoitzean arazorik gabe lortzen baita hozkailutik ateratako odola. Honi buruz zerbait gehiago pentsarazteko asmoaz jo genuen hiritarren iritzia jasotzera.



FERNANDO RUIZ DE GORDOA

1.- Ondo dago baina ni nahiko nagia naiz eta horregatik ez dut ematen. Beharbada egunen batean animatuko naiz.

2.- Alferkeria hutsa da, beldurra aitzakia txiki bat baino ez da, benetako arazoa alfer hutsak garetla da.



IKER BILBAO

1.- Beharrezkoa iruditzen zait eta odol emaila ugari egon beharko lirakekeela uste dut.

2.- Bakoitzaren xelebrekeriengatik izan daiteke. Beste kasu batzuetan ospitaleraino ez joateagatik ez dugu odola ematen.



JOSE LUIS ARRUEBO

1.- Oso ondo iruditzen zait, bizitzak salbatzeko modu egoki eta garrantzitsu bat dela oso argi ikusten baitut.

2.- Erosotasunagatik da gehienbat. Gure inguruan horrelako kasurik ikusten ez dugun arte ez gara animatzen.



JUANA MARTINEZ

1.- Informazio falta eta aurritziz asko daudela deritzot. Ni neu emaila naiz, odol zein organoena eta nire etxean guztiek eredu berbera jarraitu dute.

2.- Jendea kontzientziatu beharko litzateke beldur horiek guztiak ahazteko.



VANESSA SANTAMARIA

1.- Ez nago oso informaturik baina agian gehiago eman beharko litzateke, jende askok odola behar baitu.

2.- Beldurragatik izango da. Gainera oso geurekoiak gara eta ez dugu gure odola besteen gorputzetan ikusi nahi.

Uda honetarako
begi itzalik ederrena
aurkezten dizugu

Eguzki **Betaurreko**
Graduatuak Mencia Optikan



<http://www.multiopticas.es>

ZERBITZU
OPTIKOTAN
1a

MENDIA OPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

Larunbat arratsalde zabalik: 5.00 - 8.30

Anbototik euskarazko deia

Durungaldeko Berbaro euskal Elkarreak Euskal herriko euskaltzale guztiei deia egin die, datorren uda parteko aisialdia euskaraz egin dezaten. Berbaroren proposamena honakoa da: Anbotopean kokatzen den Martzaako etxean udaldia igarotzea, Anbotoko Marik bisitatzen ohi dituen aldeak, hain zuzen ere. Atxondoko haitzak, Atxarteko horma ezaguna eta beste hainbat gune zoragarri aurki daitezke Martzaako aterpetxe euskaldun honen inguruan.

BERBARO
ELKARTEA



KURUTZIAGA
IKASTOLA

Hona hemen Berbaroren datuak, ideia atsegingarri gertatzen zaizuenentzat:

Berbaro Elkartea, 267 postakutxa, Durango
94 620 19 18 eta 908 87 56 00

Psikologo talde batek psikologo euskaldunak bilduko lituzkeen taldea sortzea du buruan. Udako Euskal Unibertsitatean sendotuko dira proiektu hau gauzatzeko beharrezkoak diren harreman, elkarriketa eta abar luzeak. UEUko informazio gehiago Kultur Agendan.

Lazkaon XXIV. udako euskal ikastaroak Maizpide euskaltegian

Geu Gasteizko orrialdeotan publikitate ezartzen duten elkarrekin guretzako preferentzia badute ere, noizbehinka beste aukeren berri ematea gustuko dugu.

Kasu honetan, aipatutako elkarrekin antolatzen dituzten ikastaroetatik at dagoen bat zuenganatu nahi dizuegu. Lazkao herriko (Ordizia eta Beasaindik oso gertu) Maizpide Euskaltegiak ari gara, aurten XXIV. Udako Euskal Ikastaroak antolatu dituen, alegia.

Ikastaro hauek uztaila, abuztua eta irailan zehar egingo dira. Aurreneko bi hilabeteet-



XXIV. aldia da Lazkaoko Maizpide euskaltegiak Udako Euskal Ikastaroak antolatzen dituela

tzakoak dira ikastaroak eta irailaekoak, aldiz, urrats guztietan ari direnentzako (alfabetatzen, hizkuntz eskakizunak, alfabetatze teknikoak eta sakontzen barne).

Egunero 6 ikastordu jasotzen dituzte Maizpide Euskaltegi-ko ikastaroek, eta bertan ere beste hainbat ekitaldi burutuko dira, halaber bertso ikastaroak, euskal dantzak, eskulaknak, jaialdiak, mus-txapelketa...

Maizpide Lazkaoko euskaltegia Haberen laguntza jasotzen du.

Maizpide Euskaltegia

Elosegi kalea, 40 bis.

20210 Lazkao

943 88 92 32 eta 943 88 92 31

faxa: 943 88 92 32

tan 6.etik 12. urratsera bitartekoen-

ARANBIZKARRA

ZURE
AUTOESKOLA!

Valladolid kalea, 16 28 28 39
01002 Gasteiz

ELEKTRIZITATEA

muntai elektrikoen
automatismoak
girotzeko musika
eta segurtasuna

GURIA

Matxaria, 2 7. pabilioia • Tfnoa: 943 70 08 95
Faxa: 943 10 85 47 20600 EIBAR



HegoAmerikako
jantzirik ederrenak

Pintore kalea • S. Frantzisko
kantoiaeren ertzean Tfnoa: 25 03 52

Arabako musika gida

Dagoeneko kalean dugu Arabako musika taldeen gidaren hirugarren aldia. Izadi editorialak argitaratu du, besteak beste kontzertuak antolatu nahi dituztenentzako oso baliagarria den Arabako Musika Gida. Gidaren muina musika estilo oso ezberdina jorratzen dituzten taldeek (96 orotara) osatzen badute ere, beste hamaika informazio baliagarri aurkitu daiteke bertan ere, hala nola, musika dendak, ekoizleak, entsaiotarako lokalak, soinu eta argi azpiegiturak, eta beste hainbat. Arabako Musika Gida 500 pezetan sal-



tzen da. Inon aurkitu ezean, Gida eskuratzeko erarik errezena Izadi editorialara joatea duzu.

Izadi editoriala.
Diaz de Olano 22, beheia.
945 24 52 69

Gasteizko postrea

Gasteiz, jan ezazu. Honelako gomendio goxoa diosku Montehermoso Kulturunean zabaldu berri den erakusketa batek. Gasteizko Udaleko Hezkuntza Sailak antolatuta, Gasteizko historia laburbildu nahi du mostra eredugarri honek.

Komiki diseinua abiapuntutzat hartuz, 44 panelek gure hiriko informazioaren inguruko testu eta marrazki anitz erakusten dizkigute. Ez dira testuak eta ilustrazioak informazio bakarra, beste hainbat informazio mota baita gozagai; hauen artean, Doña Otxandako dorrearen maketa bat.

**Drakkar berbena taldeak
Bailables y Rockandroll
titulopeko diskoa kaleratu dute.
Rocka, tangoa eta beste hainbat
musika estilo nahasten dituen
lan hau, 18 urtez Euskal herriko
txokoetako festetan aritu
ostean gasteiztarrek
argitaratzen duten
lehenbiziko lana da.**

GEU GASTEIZ ETA JULIAN GARCIA DE ALBENIZ, ARABAN EUSKARAZ, ASPALDI
Geu Gasteiz Aldizkariak,
Asparrenako Udala eta Geu
Elkartearen babesaz, hila-
ren 7an, Araba Euskaraz
egunean, Araian, Julian
Garcia de Albeniz, XVIII.
mendeko idazle arabar eta
araiarraren inguruko era-
kusketa antolatu du. Bertan
Arabako euskararen adibide
izan diren beste zenbait
idazleren berri izango
duzue. Ez ezazue aukera
zoragarri hau galdu: Araba,
euskara, arabarrak, euskal-
dunak, hitzak, esan, izan
eta idatz.

ARABAKO GOTIKOA JASO-
TZEN DUEN
AZTERLANA SALGAI
Arabako herrialdean
aurki daitezkeen Gotiko
garaiko artelanak jasotzen
dituen ikerketa salgai jarri
du Arabako Foru Aldundiko
Kultura eta Euskara Sailak.
Raquel Saenz izan da lan
honen arduraduna, bere
tesiaren gaia izan baita
Arabako Gotikoa. 655
orrialde dituen Gotikoko
Pintura Araban liburu
mardula 2.600 pezetan
salgai da dagoeneko,
liburudenda
garrantzitsuenetan.

CEGASA
INTERNATIONAL
ALCALINA

ARABA EUSKARAZ '98
orain dugu garaia



MATERIALA SALGAI

ostiraletan 5:30-8:30
larunbatetan 11-13:30
5:30-8:30

POSTA POSTA BIDEA, 12

Esperantoa bide eta ez helburu

Giza eskubideak oinarri burutu zen Gasteizen 98ko Tejo-Ker Mintegia, hau da, 98ko esperanto-gazteen topagunea. Jatorri anitzak (Euskal Herriaz gain, Polonia, Brasil, Kroazia, Holanda, Espainia, Frantzia, Alemania, Hungria...), kultura ezberdinak eta, berez, guztiontzat ziren ikuspuntu berriak izan ziren entzungai topagunean zehar. Prudentzio Deuna, Gazte-txearen urtemugaren ospakizunak..., eta jaien artean kolore guztietako gaiak jorrazteko aukera: homosexualen eskubideen egoera, eskubide bertualak Internetan, giza eskubideen alde borrokatzen ari diren egitasmo-

ak... eta hau guztia josteko haria, esperantoa, ezin bestela.

ESPERANTOARI BURUZKO OHARTXO BATZUK

- Nork berea eta Esperantoa guztientzat, hau dugu esperantoaren leloa; elkar ulertzea erraztea, baina herri txikien hizkuntza eta kultura defendatuz.
- 1887an L.L. Zamenkosek Varsovian ideia honi hasiera eman zion
- Zenbait ikerketek bermatzen dute



Esperanto ikasi ondoren errazagoa dela beste edozein hizkuntza ikastea

- Esperanto gramatika osoan ez dago salbuespen bat bera ere
- Unescok hirutan saritu egin du Esperantoak garatutako lana
- Ingelesa ikasteko 1400 ordu inguru behar dira, esperantoa ikasteko, berriz, 250 besterik ez.

Esperanto Eklarte

Aiztogile kalea (Kutxi), 29.

Gasteizek sumendia bai

Apirilaren bukaeran Sumendik (Osasunaren Autogestioaren Aldeko Elkarte) Villa Suso (Goiuri) Jauregian antolatutako jardualdietan parte hartzeko parada izan genuen. Bertan ugari izan ziren landutako gaiak eta eginko eztabaidak. Antonio Palomarrek "Alfabetismo emocional" izeneko mintzaldia eskeini zigun; gure hunkipe-nak eta sentimenduak nola adierazi, alegia. Hezkuntza alternatiboaren inguruko debata izan zen hurrengo. Jarraitzeko "Norberak sendatu botikara jo gabe", Eneko Landaburu-ren esku, eta Iñaki Garrido eta Elena Subijana "modu ezberdin batean entzuteko ahalmena"-z mintzatu ziren; eta azkenik, jardunaldiei amaiera emateko, Cristina Corbellak "Harremanen mamiaz (Sexualitatea)" hitz egin zigun. Honez gain, maiatze-

Kontzientzi Eragozpenaren Kontseilu Nazionalak

1.023 kontzientzia eragozle arabar onartu zituen 1.997 urtean. Orotara jada 5.500 lagunetik gora aurkeztu dute bere burua 1.992az geroztik kontzientzia eragozle gisa Araban

an zehar bestelako tailerrak ere antolatu zituzten; "entzuten jakitearen artea", "erretzeari utzi" (Esther Riego), "berezko erditzea", besteak beste.

Sumendi Osasunaren Autogestirako Elkarte

Gasteiz Txiki Elkarte (ostiralero 20:00etan)

Eskola kalea, 9

Arabako Gidarik txiki-txikiena eskuragai

Aizaro Galan, Yassim El Aissoui eta Maria Urigoitia izan dira, beste 3500 lagun txiki-ren laguntzaz, Arabako Gida Hurrek Idatzia lanaren errudunak. Antonio Altarriba idazlearen gidaritzapean gure herrialdea haurren ikuspegitik nolakoa den gureganatu nahi du Vital Kutxak argitaraturiko lan honek.

Liburuak hurrek soilik eskeini diezai-guketent fantasia eta irudipena ditu ardatz nagusi eta horren inguruan gure lurraldeko paisai, animalia eta gizasemeak izugarri erakargarri bilakatzen dira.

Zazpi eta hamaika urte bitarteko idazle hauek etorkizunean idazten jarraituz gero, literaturgile harrobia ziurtatuta dugu. Hala bedi!



Gazteek sexualitatea badutelako

Egunotan, hilaren 1ean hain zuzen ere, Sexualitatea Gazteentzako Aholkularitza deritzan Udaleko Gazteria Zerbitzuko bulegoak bere ateak ireki ditu berriz. Iaz froga moduan zabaldu egin zen, baina izandako arrakastaren ondorioz, udal arduradunek aurten ere zabaltzea erabaki dute. Gazteek sexualitatearen inguruan dituzten kezak argitzea helburu duen bulego honek Etxanobe Etxean izango du egoitza, Landatxo Gizarte Etxearen parean. Momentuz abenduaren 31ra bitartean egongo da zabalik, baina gazteen artean

Udala eta Txosnen Batzordearen arteko akordio pozgarria

Gasteizko Udalak eta Txosnen Batzordeak akordio garrantzitsua lortu zuten maiatzean. Horren arabera, Txosnak hiriko festetako jai-gunea direla onartzen du, batetik, Udalak eta, bestetik, aurkezturiko taldeen artean txosna (23 izango dira) jarriko dutenen zozketa Batzorde Mixto batek egitea. Txosnek gainera, garbiketa eta osasunari dagokien udal normatiba bete beharko dute.



Iaz eginiko kanpainan 384 lagunek jo zuten Asexoriara

pizten duen erantzunaren arabera kontratua luzatzea ala ez aztertuko da. Iaz 384 gaztek jo zuten Sexualitatea Gazteentzako Aholkularitzara. Horietatik guztietatik gehienak (%65) emakumeak. Erdia unibertsitarioak izan ziren eta gaitzazkoak Irakaskuntza Ertainekoak. Orotara bisitarien batezbesteko adina 22 urtekoa izan zen.

Gasteizko Udaleko Kultura Saileko arduradunek aurtengo Andra Mari Zuriaren Jaietan Festagune berria zabalduko dela jakinarazi dute. Berau Brulleria plaza izango da eta euskarazko zein euskal kutsuko ekitaldiak jasoko ditu, Aihotz plazako eskaria zabalduz.

ARABAKO IBILBIDEAK
Arabako Argazkilaritza Elkarteak Vitoria-Gasteiz VIII. Argazki Rally-a antolatu du ekainaren 7an burutzeko. Aurten rally-a Arabako Ibilbideak izenpean egingo da bikotekako modalitatean. Gai libreak eta behartuak (sekretupekoak eta pisten bidez argituko direnak) izango dira. Parte-hartzeko 1500 pezeta ordaindu behar da eta trukean parte-hartzaileek karrete bana eta dokumentaziorako materiala jasoko dute. Lehiaketaren oinarriak honako lekuetan eskura daitezke:

L&P Studio Fotografico

Ikatz Argazki Etxea

HEGAN EGITEN IKASTEKO IKASTAROAk FORONDAN

Arabako Foru Aldundiko Gazteriaren Foru Erakundeak hegan egiten ikasteko ikastaroak antolatu ditu.

Berauek uztailaren burutuko dira, 11tik 17ra eta 18tik

24ra bitartean. 22.000 pezetaren truke, zazpi egun osoz, lau eserlekuko motore bakarreko hegazkina pilotatzen ikas daiteke. Ikastaroak Forondako aireportuan izango dira.

Gaztediaren Foru Erakundea

Probintzia plaza, 5. 4. solairua.

tfnoa.: 945 18 19 88

LA RIOJANA

jatetxea
on egin!

EGUNEKO MENUA
ETA KARTA

Aitzogile (KUTXI), 33 tfnoa. 25 02 39

ONGI
ETORRI

xurru



KUTXI 103
GASTEIZ

**BAR
KLAKÉ**

KUTXA, 2
TFNO.
143883



Bacalao Giraldo

• Eguneko makailu gesaldua • Makailua eramateko prest
• 36 errezeta ezberdin
ERAMAN ETA JAN

"kalitatea eta erosotasuna zure esku"

Angulema, 2 - Tfnoa: 27 23 25 • Basoa, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbea Merkatua - Zaldiaran • GASTEIZ





Llanos anaiek Espainiako Triathlon txapelketako sprint modalitateko aurreneko bi postuak eskuratu zituzten maiatzaren 24ean. Eraitza honekin Eneko eta Iker Llano-sek Estatuko triathleta hoberenak direla erakutsi zuten

Jaingoak erotu direla dio filme haren izenburuak eta agian horixe bera da Arabako kirolak azken urteotan bizi duen unea deskribatzeko esaldirik egokiena. Hiru txapelak olinpiko, mundu-garaile bat maratoian, Europako Kopa saskibaloian... Amets egiten hainbeste urte igaroz gero eraitzek ezustekoak asimilatze gaitasuna hankaz gora utzi digute.

Baina azken urte honetan eta, batez ere, kirol ezberdinetako denboraldien amaiera hurbiltzen den heinean, jazotzen ari dena gehiegi da. Alavesek eskuraturiko lehen mailarako igotza izan da (futbolak agintzen du, dirudienez) egunkarietako orrialde gehienak okupatu dituen, baina ezin dakiok beste hainbat balentriari meriturik kendu. Izan ere, Baskoniak lortu duena (edo lortzen diharduena) historikoa baino askoz haun-

diagoa da: datorren urtean Europako talderik hoberenak gure hiria bisitatuko dute, eta honez gain, gure gozamenarako ikusteke dago oraindik Scariolorenek TDK gainditzeko gauza izango diren. Saskibaloian Iturbe anaiek ere egundoko urtea egin dute EEBetako Unibertsitate Ligan. Ikerrek, Unibertsitate zikloa amaituta, lekua izan dezake datorren urteko Baskonian (baitz Joxean?).

Atlantako urrezko nesketako bik txapelketak utzi beharrean izan badira ere, baditugu jada ordezkioak, Gimnasia Erritmikako Mundialeko zilarra (urtea aro eta zintetan) ekarri digute eta.

Baina hain da luzea denboraldia borobildu duten kirolari eta kirol talde arabarren zerrenda, ezen ezinezkoa zaigun denek merezi duten lekua eskeintzea. Datorren urtea

Juanitoren hamabigarrena

Bere esanetan mendi gogorregia ez bada ere, lau saiakera behar izan zituen Juanito Oiarzabalek (iaz ere huts egin zuen) Dhaulagiriaren gailurra zapaltzeko. Etiketik bi zortzimilako igotzeko asmoaz alde egin zuen eta kasik bakar bat ere burutu gabe bueltatu zen. Haizeak aurreneko hiru saioak zapuztu zituen eta laugarrenean, azkenengoa, Juanitok eta Inurategi anaia atxabaltarrek helburua gauzatu zuten. Orain datorren udaberri-rako jarri du Oiarzabalek bere bizitzako helburu nagusia burutzeko data: munduan dauden 14 zortzimilakoak igotzea. Bost mendigoizalek lortu dute soilik balentria hori. Juanito, gure Juanito, amets hori gauzatzeko ate joka daukagu; dudarik gabe, merezitako amets zerutiarra litzateke.



ABENDANO ERDIALDE LAKUA ZARAMAGA

Euskaldunen bakardadea uxatzeko modua

Jendetza bakardadean ez da bakarrik Erich Fromm psikoaalista alemaniar ezagunaren hausnarketa psikosozial ospetsuaren izenburu ezin egokiagoa, ez, hiri guneetako errealtate gordina baizik. Hiri guneetan, herri txikietan ez bezala, giza-kumeek ez dute elkar ezagutzen egunero elkarren ondoan igaro edo bizi arren eta beste horrenbeste ere gertatu ohi da Gasteizko euskaldunekin; hau da, elkarren ondoan bizi arren elkar ezagutzen ez dugula. Gure hirian, 17 mila euskaldun inguru bizi arren, eguneroko bizitzan ez dago euskaldun kopuru garrantzitsu horren islada nabarmenik. Gasteizen, beraz, asko dira bakardade soziolinguistikoan bizi diren euskaldunak.

Baina, euskaldunen bakardade hori ez da ematen euren proportzio demolinguitiko urriagaitik bakarrik (gasteiztarren %8), ez; arrazoirik nagusia euskaldunen arteko harremanik ezean datza. Imajina dezagun, bestela, halako jendetza Gasteizen elkarlanean ariko balitz, zer-nolako indar erakutsiko lukeen!

Euskaldunen bakardadea euskal hiztunen komunitatearen ahulezian datza eta hutsune hori gainditzeko euskararen aldeko erakundeek aurrerapauso estrategiko bat eman dute: hasiera bateko euskalduntze eta alfabetatzetik euskaldunen arteko harremanak bultzatzeko behar diren topaguneak sortzera igaro dira, hain zuzen; eta horixe bera da euskaldunen bakardadea gainditzeko eman behar den ezinbesteko urratsa: zaletasun baten inguruan euskaldunak bildu.

Ildo horretatik joz, mendia maitatzen dugun Gasteizko euskaldunek euskararen erabilera sendotu eta hedatzearen premia horri erantzun ludikoa ematen diogu. Hau da, GEUekin Mendira taldean asmo bi asetzen ditugu bide batez: lagun arteko giroan mendian ondo pasatzea eta euskarari bultzakadaxto bat ematea. Ezetz, ez duzula sinesten?. Orduan, kanpoko turismoa erakartzeko leloak dioena gomendatzen dizugu: Zatoz eta konta ezazu!

IÑAKI MARTINEZ DE LUNA



laz bezala aurtengo txangoetan azkena, Iparraldera egingo dugu. Bi gau pasako ditugu Bidarratzko (Behe Nafarroa) Etxe Zaharra aterpean eta bertatik ibilaldiak burutuko dira larunbata eta igandeetan. Arizakungo haranean zehar izango gara, Artzamendi, Iguzkimendi eta Gora Makil mendien babesean.

eguna ekainaren 26, 27 eta 28an
izen ematea Axular liburudendan
(Maite) ekainaren 13ra bitartean.

PLAZA MUGATUAK DIRA: 30

Ekaineko-beste irteera
Baio-Legunbe

eguna ekainaren 14an
irteera 9 t'erdietan Txapela tabernan
itzulera arratsaldeko bostetan

GEUekin Mendira GEU Elkarte eta GEU GASTEIZ

aldizkariaren ekimen bat da

tfnoa.: 28 23 16 (Maite)

EUSKALTEGIETAN, NUMERUS CLAUSUS? ZIGORRIK EZ!

Erromatar hauek
erotuta daude!

HADE!

Nik ezin dut euskara ikasi
Hik ezin dun/k euskara ikasi
hark ezin du euskara ikasi
guk ezin dugu euskara ikasi
zuk ezin duzu euskara ikasi
in duzue euskara ikasi
in dute ra



10 URTE

autogestioaz ametsak gauzatzen

1988. urteko Prudentzio Deunaren egunean -hau kasualitatea, santu baten egunean jaiotzea!- Done Bixente aldapatik gazte dexente igo ziren apezpikuaren langileentzat eraikitako etxeruntz, berau okupatzeko asmoaz. Hamar urte beranduago, egun horretan jaio zen Gaztetxeak bizirik darrai. Une ederrak, baita txarrak ere, ezagutu ditu Etxe zaharrak. Batzuk ahanztezinak, beste batzuk, ordea, ahanzteko modukoak. Nola edo hala, argi dago Gasteizko Gaztetxeak gazte askorentzat askatasun koxkorra izan dela. Bere asmoak eta nahiak betetzeko lokal autogestionatu paregabea izan da haientzat. Gizarte-Etxeek berentzako nahi izango lukete Gaztetxeak erdietsi egin duena, jende gazte ugarik ilusionaturik ekimen baten inguruan esku hartzea eta ekitaldi kultural anitz eskeintzea diru kopuru handirik irazi gabe.

Gazte Asanbladak deiturik, gazte asko bildu zen apirilaren 28 horretan Fariñasen inguruan. Helburua argi zegoen, 1972. urte-tik erabiltzeko zegoen apezpikuaren gurtzainaren etxea okupatzea. Atearekin nahikoa

Gasteizko
Gazte
Asanbladak
urteurrenerako
hautatu
leloak
ondo
laburtzen
du
Gaztetxearen
filosofia

Gizarte
Etxeek
berentzako
nahi
izango
lukete
Gaztetxeak
erdietsi
egin
duena



borrokatu ondoren, lokal autogestionatu baten ametsa egia bihurtzen hasi zen. Aintzineko gurdi zahar bat, zenbait santuren irudiak gela desberdinetan sakabanaturik, apezpiku-janzkia, hilkutxak edota eraikilantarako enpresa baten tresneria zikinkeria ugariren artean izan ziren lehenengo aurkikuntzak. "Interesgarria zen Gaztetxeak eskeintzen ziguna ikertzea, ate bat ireki eta atzean zer zegoen jakin ez" adierazi zuen Kalores-ek, okupazioaren lekukoa eta gaur arte Asanbladako partaideetako bat.

Atzean kriston lana eginda gertzen zen, aurrean dena egiteko. Garai hartan, Javi Aguillok ondo gogoratzen duenez, mugimendu berezi bat sortzen ari zen kalean. "Urte horietako errefuxiatuen extradizioak, udaltzaingoaren partehartzea errepresioan eta etxebizitzara heltzeko problematika gu, gazteak, edo behintzat antzeko ideologia genuenak, kezkatzen gintuzten arazoetako batzuk ziren. Eta egoera horri erantzuna eman behar geniola uste genuen". Horrexegatik Gaztetxea okupatu baino zazpi hilabete lehenago, hau da,

Gaztetxea defendatuz

Gaztetxea galtzearen beldurra betidanik barnean eraman dute Gazte Asanblada osatu dutenek, polizia edozein unetan botatzeko aginduarekin azaltzea suerta liteke eta. "Okupazioa egin eta bi ordura, bertatik, udaltzainak pasa ziren zertan genbiltzan jakiteko. Hurrengo egunetan eta hiriko mandatariek komunikabideetan bota zizkiguten akusazioen ondorioz, polizia nazionala apezpikuak egindako salaketarekin etorri zitzaigun Gaztetxea uzteko esanez. Bakarrik idatzkia irakurri eta joan egin ziren". Gazteek, lehenengo egunetan, badaezpada, txandaka lotara geratzen ziren, Gaztetxea defendatzeko beharrezkoa baitzen. Kalores-ek esaten zuenez "polizia ez da ausartu sartzen, gizarteak nola-bait ekimena babesten zuelako".

Hala ere, Gaztetxea desagertzearen kezka eta beldurra ez da guztiz baztertu. Edozein egunetan berri txarra hel daiteke. Gazte Asanbladak nahiago du horretan ez pentsatu, eta ekitaldiak aurrera ateratzen jardun. Unea iritsi behar bada, ikusiko dute nola erantzun!

1987ko urrian gutxi gorabehera, Gasteizko Asanblada osatu zen buruhauste hauei guztiei irtenbidea emateko. "Nahiz eta ideologi antzeko jendea izan Asanbladan ez zegoen inolako dirigismo politikorik" azpimarratzen zuen Javik, lehenengo Gazte Asanbladako kide ohiak.

IRVSTA
TABERNA
poteo eta pintxoak
ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 23 19 33
GASTEIZ

TXVSTA
TABERNA

ESPEZIALITATEA: **BAT ERE EZ**

Mateo Moraza kalea GASTEIZ

KALORES

Gaztetxeko kidea hasieratik



Gaztetxea esko-larik hoberena da. Gaztetxean lan egiten duen edonork denetarik ikasten du. Gune librea da, defendatu behar duena, zeinean edozeinek nahi duena adierazi baitezake, Gaztetxe horren funtzionatzeko arauak kontuan hartuz, jakina. Mundu guztia sar daiteke.

Gaztetxea okupatu zen arte, zazpi hilabete horietan, informazio eta kontzientziatze-mailan ekitaldi dextente prestatu ziren, "Hordago" antzerki taldeak Barnekale Berrian zuen lokalean. "Taldea ezberdinak aritu ziren egin beharreko lanetan; batzuk propagandan, beste batzuk lokalen bila, ekitaldiak prestatzen,... Jendeak 'mugimendu' honetan sinestu eta garai bitxi hura bizi zuen", komentatzen zuen Erlantzek, Kaloresen modura hasiera-hasieratik egondako Gaztetxeko kideak. "Pren-tsan ateratzen ginen eta bazirudien gizarteak okupazioa ikuspegi onetik aztertzen zuela; nolabait esateko, jendea prestatzen ari ginen etorri behar zenerako".

Bolada txarrak

Gaztetxea okupatu ondoren, denboraldi majiko horrek urte t'erdi iraun zuen. "Jendea kontzertu guztietara igo ohi zen, nahiz eta taldea zeharo ezezaguna izan. Gazte Asanbladan 150 bat lagun biltzen ginen; garbi zegoen Gaztetxe bat geneukala eta defendatu behar zela" azaltzen zuen Erlantzek. Baina denbora pasa ahala, Gaztetxearekiko ikuspegi ezberdinak igartzen hasi ziren. "Alde batetik, Gaztetxean ordezkatzen ziren familia politikoen kontzeptu diferenteez -komunistak, abertzaleak eta autonomoak- apurtu

zuten Gaztetxearengana-ko batasuna. Norberak bere proposamenak eraman nahi zituen aurrera, besteenak kontuan izan gabe. Bestetik, lokalaren erabilerarekin ez gentozen guztiok bat. Batzuek etxebizitza erabiltzeko aukerari eusten zioten eta beste batzuk, ni barne, bakarrik kolektibontzako lokala izatearen alde agertzen ginen. Azkenik, lan esparruetan ere desadostasunak nagusitu ziren. Alde batean teorikoak geunden, zeinek dinamika sozial bat sortu nahi genuen, Gaztetxea kalera ateraz eta propaganda mailan lan eginez eta, beste aldean, praktikoak", lokala lehenbailehen hobetu nahi zutenak, azaltzen zigun Javi Aguillok.

"Bageneraman urte eta erdi, eta ez genuen ezertan aurreratu. Ez, Gaztetxearen kanpoko itxuran, ezta barrukoan ere" azpimarratzen zuen Kalores-ek, praktikoen ikuspegikoa. "Hasteko, lan dextente egin beharra zegoen eta mundu guztia ez zegoen lohihartzekoa janzteko prest eta, honez gain, 'familia politikoen' artean gorroto zorrotzak eta Gaztetxearekiko kontzeptu ezberdinen aldea haundituz joan zen". Egoera honen aurrean eta batzarra gogor baten ondorioz, jende askok utzi zion Gaztetxera etortzeari, horien artean Javi Aguillo zegoelarik. "Prozesu natural bat izan zen, gure aburuz Gaztetxeak harturiko bidea ez zen guk landu nahi genuena".

Eta horrela bigarren etapa jaio zen. Guztien ustez ekinaldirik gogorre-na. Bertan, Gaztetxean, jendea bizitzen geratzen hasi zen eta horrek, nolabait, funtzionatzeko dinamika apurtu zuen. Erlan-



Oso
gogorra
da
Gaztetxetik
jendea
botatzeko,
baina
egin
beharreko
gauza
zen

tzek zioenez "batzuek egini-ko lana, beste batzuek desegiten zuten. Ezinez-koa zen dinamika bateratu bat aurrera eramatea".

Kalores Latinoamerikan zegoen eta Gasteiza itzultakoan ikaratu egin zen. "Jendearen arteko 'rollo txarra' hor zegoen, jipoiak eta guzti izan ziren. Gaztetxean ez nengoen gustura, nire etxea ez zelako. Hor bizitzen ari ziren batzuek Gaztetxeko zati bat okupatu zuten eta kasik ezin zitekeen hortik pasa. Giro txar hura kalean ere igarri egin zen. Barruko egituren ibiltzen ez zen hainbatek etortzeari beldur zion. Egoerak eztanda egin behar zuen, eta eztanda egin zuen".

Zuzperraldia

1992ra arte, hiru urte gutxi gorabehera, itxaron behar izan zen jazotakoa ahazteko. Gazte Asanbladak, egoera ahal zen neurrian hobetu asmoz, jendea kanporatzea erabaki zuen. "Oso gogorra da edonorentzat Gaztetxetik ateratzera behartuta izatea eta jendea kanporatzea, baina egin beharreko gauza zen, egoera aldatu nahi bagenuen bederen. Oso

erabaki gogorrak hartu ziren" gogoratzen du Erlantzek. "Giroa hobexeagoa zen, baina oso jende gutxi geratu ginen lanean, astelehenetako bileratara maiz bizpahiru lagun baino ez ginen elkartzan".

Lan egiteko konpromezu haundia hartu zuten hor geratu zirenek. "Nahiko denboraldi izukorra hasi zen, oso ekitaldi gutxi prestatzen ziren, baina gustura geunden" jarraitzen zuen Erlantzek.



ERLANTZ

Gaztetxeko kidea hasieratik

Gaztetxea munduko kolektiborik solidarioena dauka. Adibidez, presoen gaia hartuz, Gaztetxeak oso ekimen ederrak egin ditu. Ez Amnistiaren Aldeko Batzordeak, ez Senideak, ez AFAPP-ek, inork ez du presoen aldeko hainbeste ekimen burutu. Elkartasun hitzak ongi definitzen du Gaztetxea.



GUREA

jatetxea

Konstituzio Enparantza, 10
Telefonoa: 24 59 33



BEIRATE ESTUDIOA

Txikita kalea, 1
Tfno. 14 64 10
GASTEIZ

"Bi edo hiru lagunen artean hartzen genuen gure gain larunbat bateko lanen ardura" - gehitzen zuen Kaloresek. Poliki-poliki Gaztetxea, galduriko dinamika, berreskuratzen hasi zen. Beste kolektibo batzuk animatu ziren ekitaldiak hor bertan antolatzen. Jendea berriro, arazorik gabe, igotzeko prest agertu zen.

Azken urteak, hoberenak

Orain dela hiruzpalau urte haize berriak Etxe zaharrerraino hurbildu ziren. Igor Lekuona hauetako bat da. "Gure koadrilakoak ez ginen etortzen zeozertaz konbentzita geundelako, besteek komentatu duten bezala, baizik eta Gaztetxeak erakartzen gintuelako. Zenbait parranda egin eta ondo pasatzen genuen. Animatu ginen asanbladetara etortzera. Ni ez nintzen inoiz izana holako bilera batean. Ez genekien nondik nora joan, baina astiro-astiro ikasiz joan ginen. Nire ustez hemen lan egiten dugunok mugimendu edo problematika guztietatik zertxobait ikasi behar dugu. Hori da Gaztetxearen helburua."

Gaur egun gai asko jorratu ditu Gazte Asanbladak; ETT-ak, presoen aldeko ekimenak, etxebizitza... Eta Gaztetxean bertan talde asko biltzen dira: PIPI talde feminista, Intsumi-



JAVI
Gaztetxeako kidea hasieratik

Betidanik, Gaztetxea barnean eraman dut. Guk lortu ez genuena, kolektiboentzako lokal bihurtu, suertatzen ari da azken urteotan. Izan nintzen etapan Gaztetxea defendatzearen ideia argi zegoen, baina ikuspegi ezberdinak elkartzen ziren.

tuen Asanblada, Abiadura Haundiko Trenaren aurkako Asanblada, Kalamudia, Antifaxisten taldea... Argi dago Gaztetxea Gasteizko gazte-riarentzat erreferente nagusia dela. "25 edo 30 bat lagun bilduko gara Gazte Asanbladan - jarraitzen zuen Igorrek, giroa ezin hobea da.

Denbora luze ematen dugu hemen eta nahiko elkartuta gabilta".

Erlantzen arabera "etaparik interresgarriena bizi du gaur Gaztetxeak. Jendeak ekimenarekin bat egin du. Berdin dio zer eta nola pentsatzen duen bakoitzak, Gaztetxearen ideia txit argi dagoelako. Gaur hasieran izandako gatazka ergel horiek ez leudeke. Orain dinamika bateratu bat egin daiteke."

Auzokideak eta obrak

"Hasiera batean Alde Zaharrako emakumeak Gaztetxeraino hurbildu ohi ziren zapiak eta guzti gazteei uzteko. "Horrela izan da eta hunkigarria eta polita zen..., dena nahiko zikin geneukala esaten ziguten; gero, udaletik toxikoma- noak, pun- kak edota ganberroak ginela lepo-

ratu ziguten, baina lehengo kontak- tuak auzokideekin onak izan ziren" gogoratzen du Erlantzek. Gaur egun Gaztetxea ordubietan ixten da, taber- netako ordutegia mantenduz.

Gaztetxean urtero egin dira lanak egitura hobetzeko. Okupatu bezain pronto, txukundu eta apaindu egin genuen lokala, erakargarria izan zedin. Eszenatokia hiru aldiz berritu egin da. Urarekin arazo haundiak ezagutu zituen Gaztetxeak. "Lehen kanpotik hartu behar izaten genuen ura. Apezpikutzari kontagailu bat jartzea proposatu genion, baina jara- monik egiten ez zigutenez, gure kabuz kanpoan zegoen ur-hartunetik hartzen genuen ura". Ura behin sar- tutakoan, komunak jarri genituen.

Beste hain- bat gau- zaren zaren artean Gazteizko Gaztetxeak Euskal Herriko komuna

origina- lenak ditu:



IGOR

Azken urteotako kidea



Gaztetxeak

gauza asko erakutsi dizkit. Bat nator Kalores-ekin, eskolarik hoberena da. Hurbildu nintzen erakartzen nindue- lako eta atsegin izan nuen zegoen dinamika. Hasieran, esaterako, femi- nismoaz ez nekien tutik ere.

Berrikuntzarik handiena 7.urteurre- nean ezagutu genuen. Iaz edo teila- tua konpondu zen eta datozen urtee- tan, auskalo!

EGOA LIBURUDENDA



LIBURUAK • MUSIKA • MATERIALE BIRZIKLATUA
Manuel Iradier kalea, 9-A Tnoa. 14 88 95

jo eta ke

TXAPELARRI
TABERNA

Aitzogile (KUTXI) kalean

Argazki - Estudio

Erramun

Heraclio Fournier, 23 Askatasun kalea, 5
Tnoa: 13 71 02 Tnoa: 26 19 91
01006 01004

☆

IZ
TABERNA
R
A
JATETXEA

BITORIANO (Zuia • Araba) TEL. 43 00 73

axular

LIBURUDENDA

Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ



men a bingen dizabal

Bingen Mendizabal eta Juanjo Mena Araba eta Euskal Herriko musika munduan bi erreferentzia nagusienetakoak dira; sarri elkarlanean aritutakoak ditugu, gainera. Azken urteotan atzerrian lan egitea zer den ikasi dute eta, pozik dauden arren, ez dirudi esperientziak zoratu dituenik. Los Angeles-etik bueltan harrapatu genuen Bingen Mendizabal eta Printzipalen emandako kontzertuaren atarian, Juanjo Mena; biek azken lanen errepasoa egin, eta asmoen berri eman ziguten.

TESTUA: **LEIRE LOPEZ DE ABERASTURI**
ARGAZKIAK: **EDORTA SANZ**



Brigizon eta errealitate bihurtu zen amankomuneko amets bat urteko musikalean

ARABARRAK HOLLYWOODEN

GEU GASTEIZek aurkezten du
testuak LEIRE LOPEZ DE ABERASTURI argazkiak EDORTA SANZ maketazioa GATZAGAIN
gidoi orijinala LEIRE LOPEZ DE ABERASTURI moldaketak ESTITXU BRENAS diseinua ASIER Pz. DE KARKAMO
GEU GASTEIZ ALDIZKARIAK ekoiztua

© 1998 GEU GASTEIZek eskubide guztiak hartuta

DOLBY STEREO
ARETO NAQUISJETAN





Ameriketara salto egin berri du. Azken hamarkadan jendaurreratu eta E.H.ko zine-zuzendarien artean ezagun egin den musikariak Estatuko filmerik ikusiei musika jarri die -*Airbag, Secretos del Corazon, La Madre Muerta, Cachito, Extasis*,...- Oihartzunak Ameriketara eramandu. L.A.-etik bueltan pozik agertu da, baina beste munduko aurkikuntzarik egin gabe, dirudienez.

Mugarik gabeko musika

etty Kaplan zuzendari venezuelarraren bigarren pelikulari musika jartzea izan da gasteiztarrari Estatu Batuetatik etorritako lehenengo lana. Pelikula Romulo Gallegos idazlearen *Doña Barbara* (Barbara anderea) liburuan oinarrituta dago eta Jorge Perugorria kubatarra du protagonista, eta gainontzeko aktoreak ere argentinarrak, espainiarrak,... dira. Mendizabalek filme latino gisa definitu du pelikula, baina ez du uste bera horregatik soilik deitu dutenik. "Ez dakit estatubatuar zinemagintzan sartzea askoz zailagoa den ala ez. Nire aurreko lanak ezagutzen zituzten eta horregatik deitu zidaten. Hori da nik dakidana".

Bingen Mendizabalek berak egindako lana Seattle eta Los Angeleseko grabazio estudioetan egin da: grabazioa Seattlen eta azken ukituak Kaliforniako hiriburuan. Los Angeles-en *Bihotzeko Sekretuak* filmeko taldearekin izatea espero zuen, beraiek Oscar-en banaketa jaialdira joanak baitziren, aski ezaguna denez, baina "datekin arazo bat izan genuen, nire lana atzeratu egin zen eta ezin joan, baina asmoa banuen".

Egindako lanaren balorazio baikorra egin du Bingenek, baina espero zitekeen garrik gabe: "Han eta hemen lan egitea antzekoa da, baina hobexeara". Estatu Batuetako estudioetako teknikariekin baino, musikarien profesionaltasunean somatu du Euskal Herriarekin aldea gasteiztarrak. "Oso musikari profesionalak dira, pelikuletarako musika grabatzea da euren lana, eta pelikula bat goizez eta beste bat arratsaldean grabatzen ohituta daude".

Bingen Mendizabalek gustuko lan taldea eramateko aukera izan du, "Ez guztiz, baina bai. Juanjo Mena zen orkestra zuzentzekoa, baina ezin izan zen etorri".

Lagunekin eta Gasteizen

Zinema zuzendarien artean ohikoa da edozer gauza egiteko Madrilera joan behar dutela entzutea. Bingen Mendizabalek, berriz, lana etxera, Gasteizera ekarri egin du. "Azpiegitura polita lortu dugu eta neuretzat hemen lan egitea funtsezkoa da, batez ere lagunekin lan egiteko aukera dudalako".

bingen
mendizabal



duen lana da eta erabat hustuta amaitzen duzu".

Azken urteetan lan asko egin ondoren, orain gauzak lasaiago hartzeko asmoa du.

Mendizábalak. "Batzutan bi pelikula batera egin izan

ditut, aukera guztiak aprobeztatu behar nituela uste nuelako. Baina orain gauzak lasaiago hartzeko asmoa dut". Izan

ere eta zinemagintzaren munduan oso sartuta egoteagatik hain zuzen, musikaren beste arloak alde apur bat baztertuta izan ditu. Agian horregatik, Nahiko eta Hertzainak taldeekin musikari bezala ezagutu

Filmeen itzalean

Pelikuletako musikaren arrakasta filmeetan lortzen dutenaren menpe egon ohi da; zaila da biak bereiztea. Alde horretatik itxaropentsu agertu da Bingen Mendizábal, Betty Kaplanen lehen filmea De amor y de Sombra (Maitasunaz eta itzalaz) ondo funtzionatu zuen eta oraingo hau Universal konpainiak zabalduko du. Ez dirudi seinala txarra.

Azkenaldi honetan badirudi filmeetako musika modan jarri dela, baina filmeetan duen harremana hautsi gabe. "Nik ere azken lanak CD-n atera ditut. Baina jendeak pelikuletako musika erosi edo entzuten badu pelikula gogorazten dielako dela uste dut. Egia da egon badagoela garai guztietako filmeen musika ezagutu eta gustukoa duenik, baina gehienetan pelikula bat gogoko duelako erosi ohi du jendeak musika hori".

Gainera, filme-ikusleentzat musika ez dela ageriegia geratu behar uste du Bingenek; pelikula baten soinuaren zeregina istorioa laguntzea dela, alegia.

Hala ere, eta musikak mugarik ez duenez, beti Gasteizen lan egiten jarraituko duenentz ez daki ziur. "Saiatu saiaturik naiz, baina gerta liteke beste nonbaiteko musikarien laguntza behar izatea edo".

Gasteizen lan egin duenean musikaren prozesu osoa kontrolatu izan du, baina Estatu Batuetan produkzio lanak besteen esku utzi eta musika konposatzera mugatu da.

Ez dirudi produkzio lanak gehiegi atsegin dituenik, "musikariak bilatu, papeleoa konpondu, gauza guztiak prestatu,... hori da azken finean produkzio lanetan aritzea", baina egiten jarraitzeko asmoa duela azaldu du.

"Berritro jotzen hasi naiz"

Produkzioa barne, hiruzpalau hilabete igarotzen dira Bingenek pelikula baterako musika prestatzeko enkargua hartzen duenetik lana amaitzen duenera arte. "Hiruzpalau hilabete dira orotara, baina lanean zeharo murgilduta ematen ditut egunak, kasik ezinezkoa da beste ezer egitea pelikula bat grabatzen ari zaren bitartean. Askok eskatzen

zen gizonak irribarre egin du berritro jotzen hasi dela esatean, "Ez dira musika talde egonkorrak, baina hor gaude"; Los amigos del Cañamo-ekin adibidez.





Euskal Herriko Gazte Orkestraren zuzendari artistikoa eta Euskal Herriko Orkestra Sinfonikoaren zuzendari elkarkidetu da. Eta ez hau bakarrik (gutxi baitlitzan!!!); **Bilboko Orkestra Sinfonikoa**, **Bacau**-ko Sinfonikoa, eta **Brasov**-ko Filarmonikoa (Rumania), **Granada** Hiria eta **Madrilgo** Komunitateko orkestrak zuzentzen baitihardu aurten **Juanjo Mena** gasteiztarrak. Hori guztia.



juanjo mena

EU GASTEIZek entsaioak eginez geroztik eta kontzertua baino lehenxeago harrapatzea lortu zuen Gasteizko Kontserbatorioan Europarako bidea jorratu duen zuzendaria: *Bai, duela bi urte hasi nintzen Frantzia lan egiten eta aurten Rumanian ere lan egiten ari naiz. Ez naiz Estatu Batuetara iritsi, Bingen bezala, baina ia-ia.*

Euskal Herrian ere musika klasikoaren arloan esperientzia berritzaileak egiteko aukera dagoela baieztatu du Menak, iragan urteko Getxoko Folk Jaialdian Kepa Junkerarekin batera jo zuen Orkestra Sinfonikoa zuzendu baitzuen, eta kontzertu baterako prestatutako lana izan zen arren, proiektuak aurrera joko duen itxaropena agertu du, "Kepak lanean jarraituko du, ziur, eta ikusiko dugu zer gertatzen den".

Kontzertua prestatzeko lan eskerga egin zutela

aitortu du zuzendari gasteiztarrak, "arazoa ez da edo ez zen izan trikitiak ezin dezakeela orkestrarekin batera jo, baizik eta eginiko konponketak ez zirela zeharo egokiak eta berkonponketa ugari egin behar izan genituela".

Azkenaldian musika klasikoak gorakada nabarmena bizi duela dirudi, Pavaroti-k Bilbon eman zuen kontzertua eta Gasteizen izan ziren Silos-eko lekaideen emanaldiak sorturiko arreta eta bildu zuten jendetza ikusita, ez luke zalantzarako tokirik egon behar, baina boom hori moda kontua da, Menaren iritziak. "Dena den, musika emanaldi batek bete behar dituen gutxienezko baldintzak betez gero, proiektu interesgarriak dira". Hala ere, musika konpainia handiek asmatu eta bultzatutako proiektuak direla ezin uka daiteke, "musika etxe batzuen jokaerak musika klasikoaren bere ohiko ingu-



rutik atera ohi du”.

EHGOk, musika gaztea?

Nahikoa jendetza bildu zuen Menak zuzenduta Euskal Herriko Orkestra Sinfonikoak emandako kontzertuak ere. Juanjo Menak Euskal Herriko Gazte Orkestrarekin (EHGO) egiten du lan nagusiki, bertako

“hain urrun iritsi daitekeela ikusita, laguntza behar dugu orkestra egonkor bat lortzeko”

zuzendari artistikoa baita. EHGOren bereizgarri bakarra musikarien adina dela azaldu du harro-harro, “adina besterik ez. Ez dago alderik, ez kalitatean ezta erreperatorioan ere. Izan ere, sorpresa atsegina izan genuen EHGOekin lan egiten hastean, espero genuena baino askoz kalitate hobeagoko orkestra da-eta. Egia esan, EHGOk dituen aukerez jabetzerakoa, hasiera batean planteaturiko asmoak txiki geratu zaizkigu”. Kon-

paratzeari ekinez, EHGOren hasierako maila Estatuko Gazte Orkestra-k agertutakoa baino askoz altuagoa izan zela diote adituek.

Euskal musikari gazteen prestakuntza ikusita, instituzioei ahalegin bat egitea eskatu die zuzendariak. Lagungarria oso izan daiteke, dudarik gabe. “Hain urrun iritsi daitekeela ikusita, laguntza behar dugu orkestra egonkor bat egiteko”.

Musikari profesionalak ez direla kontuan hartu beharreko gauza da, eta urtean bitan besterik ez dira entsaiatzeko elkartzen. “Udan eta Gabonetan baino ez gara biltzen; ezin ahanitz daiteke ez direla honetaz bizi, beraien lansari bakarra dietak izanik”.

Atzerrian egindako lanari buruz hitz egitean ez da baikorregi azaldu, “kanpokoia onena balitz moduan saltzen digute, baina ez da beti horrela. Errumaniako egoera, adibidez, oso latza da eta bertako orkestren maila ez da beste munduko gauza. Atzerrian badaude orkestra onak, baina bakar batzuk besterik ez dira”.

aldizkari
berria
jaio da



eta lagun
berriak
behar ditu

**EGIN ZAITEZ
HARPIDEDUN**

Izen-deiturak _____
 Telefonoa _____
 Helbidea _____
 Kodea _____
 Hernia _____
 Jaiotze data _____ Lanbidea _____
Urteroko kuota: 1.500 pezeta
 Kontu zenbakia (20 zenbaki)
 Enitetea Sukurtsala K.D. Kontu zenbakia _____
GEU GASTEIZ ALDEKARIA
PEDRO AGUA, 2. BA.
01003 TFNOA: 22 21 53

GEU
GASTEIZ

GEU ELKARTEAREN BABESAREKIN

Gehienontzat ezezaguna den mundu batean murgilduko gara datozen lerrootan, itsaso azpian, alegia. Bertan sekretu asko gordetzen ditu itsasoak, flora eta fauna, kobazuloak... Horiak guztiak edertxo ezagutzen dituzte itsaspekariek, eta hain zuzen ere hauek ditugu mintzagai ekaineko alean.

TESTUAK: ISMAEL DIAZ DE MENDIBIL

Itsas azpiko ABENTURAK

Horrela, barruko lurraldean bizi garen arren, buzeoan aritzen direnak gero eta gehiago dira gurean. Araban hiru talde dira: Nereida, Araba-Sud eta suhiltzaileen taldea; guztira, 300 kirolari inguru. Nereida taldekoa den Miguel Angel Barriok argitu digu buzeoa egiteko era ezberdinak daudela: "Lehendabiziko urratsak igerilekuetan ematen ditugu beti, hau da, helburua itsasoratzea bada ere, igerilekuetan ikasten dugu guztiok. Gero, bai, itsasorako bidea hartzen da, eta hantxe denetatik egin daiteke: Orientazioa, gauzez igeri egin, kobazuloetan sartu, argazkiak...". Ildo beretik, buzeo ikastaroetan gero eta lagun gehiagok ematen du izena, "Iparralde gizarte etxean hasi eta Mutrikuko hondartzetan bukatzen dira ikastarok, merkeak direnez jendez gainezka izaten dira". Honekin batera, urtegi-tan ibiltzerik ez dagoela azpimarrazten du Barriok, "ez da ezer ikusten,

ez dago ezer ikusterik, eta hori gutxi balitz, lokatza da nagusi".

Mutrikuko altxorra

Arabako itsaspekariek Mutrikura joan ohi dira sarri askotan, halere, behin baino gehiagotan Mediterraneorako bidea ere hartu egiten dute. "Mutrikuko aldea ona da, tarte txiki- kian altxor handiekin egiten baituzu topo. Hala eta guztiz ere, alderik one- nak Gironako L'Estartit herrian, Ibi- zan eta Menorcan ditugu. Astakeria dirudien arren, ostiralean Ibizara joan, eta igandean etorri izan naiz maiz". Dirutza izanez gero, aukerak bestelakoak dira, "Galapago irleetara joaten dira, han animalia ederrak ditugu ikusgai: Itsas lehoiak, marra-

Beste batean buzeoa eta bizikleta tartekatuta genituen, Amerikako errepublerik altuenetan egon bainin.

zoak, iguanak, dortokak... Maldibak edo Itsas Gorria ere ikustekoak dira".

Miguel Angel Barrio geldirik egoten ez dakien horietakoa da. Ur azpian ez badago, mendi bizikleta hartu edo Saharan giza laguntza eskaintzen du. Dena den, berak aitort-



Mutrikuko zonaldea ona da, tarte txiki- kian altxor handiekin egiten baituzu topo



LANDABURU
AKADEMIA

KLASE
PARTIKULARRAK

Guatemala, 12. behe. 12 09 50

AMILAMIA

arropa eta osagarriak



Pintore kalea, 17
tfnoa: 27 40 09
GASTEIZ

XIXILU

AMARIKA PLAZA 2
23 00 68 GASTEIZ

J A T E T X E A

tzen duenez, "arriskua nonahi ager daiteke; beraz, arretaz ibili beharra dago. Hori oso aintzakotzat hartuz, abentura handiak egitea dugu gustuko. Burgosen, esaterako, neguan Neilako lakuan urperatu ginen. Hantxe, ura izozturik zegoen, eta izotzak metro erdi bat egiten zuen behera. Ahalegin handiz, baina lortu genuen azkenean. Beste behin buzea eta bizikleta tartekatu genituen, Amerikako errepiderik altuenean egon bainekin: 4.800 metroko altuera, Perun, Limatik gailurreraino 165 kilometro daudelarik. Pirinioak (Hondarribiatik Gironara), Kilimanjaro...". Agerian denez, zenbatezinak dira Barrioren abenturak.

Gure elkarrizketatua buzeoan hasi zenean, "lau katu" baino ez ziren Araban. Egun, aldiz, asko eta asko dira bonbonei heldu eta urperatzen direnak. Normalean, itsaspekariak 25 bat metro egiten ditu beherantz, kostaldetik hurbil, gainera, bospasei kilometrorra, gehienez. Bertan, askorentzat guztiz ezezaguna den mundua dute ikusgai: arrainak, harriak, algak... Ba al zatoz gurekin?



botepronton

Paca

Alaveszalea.



TESTUA: ISMAEL DIAZ DE MENDIBIL ARGAZKIA: EDORTA SANZ

Zer nolako mutilak dira Pacaren gustukoak, beltzaranak, ilegorridunak, garaiak, txikiak...?

Garrantzitsuena ez da kantitatea, kalitatea baizik. Beraz, txikiak; eta beltzaranak hobe, indartsuenak baitira.

Eta zein da Deportivo Alaveseko jokalaririk potenteena?

Tito atezaina, Juramentos ezizenez ezaguna. Zaletuek gogor kritikatu dute askotan, baina atezaina bada, atetik irten beharra dauka batzuetan. Oso maite nau Titok.

Non zegoen Paca hobeto, Florida Parkean dantza egiten ala Dato kalean gora eta behera?

Florida Parkean! Mutilekin dantzan... Juan Arregi askotan aipatzen duzu; senargai ezinhobea zuretzako, diruduna, jatorra...

Orain egun batzuk esan zidan: "Zuk eta biok ezkondu behar genuen", nik, aldiz, erantzun nion: "Bai zera!, orain esaten didazu hori, berandu gogoratzen zara nitaz". Gainera, orain haserre dago

Alaveseko zaleturik ospetsuena eta zoriontsuena dugu. Deportivo nora, Paca hara. Zelai txarretan eta talde ezezagunekin urteak eman ondoren, Pacak Santiago Bernabeu, Nou Camp edo San Mamesen ikusi ahal izango du taldea. Ederto azaltzen digu nolakoak diren Alavesen benetako zaletuak: Gutxi baina onak.

Gonzalo Antonekin.

Zer egin zuen Pacak Deportivo Alaves igo zen egunean?

Egunerokoa. Alabaren etxera joan nintzen afaltzera. Lasai hartu nuen.

Zer aldatu da gehien azken urteotan?

Lehen emakumeok ez genekien zer zen askatasuna. Pentsa!, nire senarrak lau txakur txiki utzi zizkidan hiltzean, eta lan egiten hasi behar izan nuen.

Zerk edo nork ematen dio Pacari indarra?

Alavesek (bitan pentsatu gabe). Deportivo Alaves egon ezean, hilik nengoke.

Apezpikuak esandako homilia, Deportivo Alavesen norgehiagoka bat ala mutil eder batekin dantzan...

Mutil eder batekin dantzan, ez, ez..., txantxetan nioen. Futbol partidua nahia-gu dut.

Deportivo Alaves Lehen Mailan da, eta orain zer?

Egindakoaz gozatu, eta ea urte askotarako den. Ez dakit, ez dakit zer gertatuko den, baina orain zoriontsua naiz.

BASERRITAR ERAKO ALTZARIAK
berreskuraturiko egurrez eginak
eta **OSAGARRIAK**

artisans lanak
lorategi eta barnualdeko-proiektuak
egiten ditugu

Errementari (HERRE) 38, behea tfnoa.: 25 25 03 01013



Xabier

taberna

musika ona
eta giro
ezinhobea

Aiztogile (KUTXI), 23

denok Araiara

Autengo Araba Euskarazko edizioa gertu daukagu. Antolaketa lanetan ibili den Aintzane Guridik jaiaren inguruko hainbat "sekretu" kontatu zizkigun. Armentia ikastolako irakasle honek orain arte egindako lana positiboki baloratzen du eta bere baitan, seguraski, jendea Araiara etortzera animatzea espero du, Armentia ikastolak behar izango baitu.

Zergatik hautatu zuen Armentia ikastolak Arai herria Araba Euskaraz ospatzeko?

Gasteizen behin baino gehiagotan egin denez, aldatu nahi izan dugu. Batez ere, kontutan hartuz Araba zabal dela eta Arabako leku guztietara hedatu nahi dugula euskara. Beste leku bat aukeratu behar zela uste izan dugu. Arabako ingurune begiratzuz, Arai leku polita da, hori ezin da ukatu. Eta polita izateaz gain, komunikabideak kontuan izanik, nahiko leku egokia da. Trena badu, errepidea ere ona da. Araiak ere euskarenganako joera edo zaletasuna erakutsi izan du, eta hori kontuan hartu beharreko gauza da.

Geografikoki oso ondo kokaturik dago Arai Euskal Herrian; komunikazioak kontuan izanik izan liteke Araba Euskarazko ediziorik arrakastatsuenak?

Hori ez dakigu, guk hori espero dugu behintzat. Horretarako ere, ikusi behar, eguna pasa eta gero.

Antolatzeko orduan zein jarrera jaso duzue Arai eta araiarren aldetik, "kanpotarrak" izanik?

Antolaketa mailan orain dela urte bete edo hasi ginen. Udaletxera jo genuen, baimena eskatzeko, noski, eta beraiei guztia komentatzeko. Hasieratik hantxe talde bat osatu zen, herriko kultur eta kirol talde pilok esku hartu zuten. Joan den ekainetik, hilean behin edo birritan joan izan gara hara eta bilerak elkarrekin eginez oso ongi hartu gaituzte.

Bestaldetik, laguntzarik jaso al duzue?

Laguntza, beti izaten duzu laguntza. Gasteizko euskal kultur taldeek ere laguntza eman digute. Maiatzaren lehenengo egunetan Hilduen Kantu Txapelketa egin zen. Bagarekoe deia

jaso genuen eta ahal izan zen neurrian lagundu genion elkarri.


Zertan behar izango duzue laguntza?

Aste honetan lan gogorra izango dugu muntaian. Eta igandean, txosnetan, aparkalekuetan,... Edozein tokitatik etor daitekeen laguntza eskertzekoa izango da. Joan den hilabetean jendeak aukera izan zuen bere izena Araiako udalean bertan emateko; eta Gasteizen, Bagaren, ikastolan edo AEK-ko euskaltegietan.

Zertarako erabiliko da diru-etekina?

Ikastolak aurrera egiteko. Eraikuntza haundia da. Baina obrak urtero-urtero egiten ari dira. Azken finean, Armentia ikastola hasten eta hazten ari den ikastola delako. Hasten ari den edozein ikastolak beharrak ditu. Hori argi dago. Mailetan gora egin nahi duzun heinean, laguntzak behar dira.

Zenbat Araba Euskaraz antolatu



Hori izan da Araiara eramateko beste arrazoietako bat. Nire usteetan ezin ahanzt dezakegu euskararen aldeko jai bat dela eta euskararen aldeko jai batek edozein herritan izan behar duela toki. Nik uste hori guztiok daukagula argi.

Lana etorriko bide zaitzue bi urtetan behin...

Auskalo!!

Ze motatako ekitaldiak prestatu dituzue urtean zehar?

Izan izan ditugu. Araian bertan grafiti bat egin zen hasieran haurrekin. Gero izan genuen Oskorri & Kukubiltxoren *Marijan kanta* zan saioa Mendi-zorrotzako kiroldegian. Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoekin Lapuebla de Labarkan, Laudion eta Araian izan gara. Eta urtean zehar bideoa egin dugu, 700 bat banatu ditugu dagoeneko. Azkenik, Foru Aldundiaren laguntzaz ipuin bilduma bat argitaratuko dugu haurrei begira. Idazleak Jon Arre-

Ingurune ederrean egoteko proposamena izango da Araiara etortzea

beharko ditu Armentia ikastolak arazorik gabe aurrera egiteko?

Ez dakit. Hori ezin esan daiteke.

Baina gaur gero eta gehiago. Ikastolen Elkarteak, eskola publiko eta pribatuaren arteko gatazka dela eta, oso ikastola gutxi geratu zarete eta mai-zenik egokituko zaizue prestatzea.

txe, Antton Irusta, Patxi Zubizarreta, Itxaro Borda, Koldo Biguri, M. Agur Meabe eta Xabier Olaso izango dira.

Gonbida ezazu jendea Araiara joateko...

Ekainaren 7an eguraldi ezin hobea izango dugu. Eta ingurune ederrean egoteko proposena izango da Araiara etortzea.

350 kilo margo gastatu ziren maiatzaren 16an Fronte Polisarioaren 25. urteurrena ospatzeko Errepublika Arabiar Saharar Demokratikoaren Lagunen Elkartek buruturiko ekitaldian. Arabako 5 artistek Autobus Geltoki Zaharreko hormak basamortu bihurtu zituzten, lelo bakar baten azpian: independentzia.

TESTUA ETA ARGAZKIAK:
ASIER PZ. DE KARKAMO

Arabarrok eta, orokorrean, euskal hiritarrok menpekotasun egoeran dauden herriekiko dugun elkartasuna ikustarazi zuen Errepublika Arabiar Saharar Demokratikoaren (RASD) Lagunen Elkartek deituta bost artista arabarrek maiatzaren 16an buruturiko ekitaldiak. Iñaki Cerrajería, Fernando Illana, Juncal Ballestin, Juan Lopez de Ael eta Jose Carlos Fernandez Marco-tek 350 kilo margo behar izan zituzten Autobus Geltoki Zaharreko hormak pintatzeko.

Aurki Saharan egingo den erreferenduma eta Fronte Polisarioak (RASD sortu zuen taldea) hogeita bost urte bete dituela ospatzeko, Autobus Geltoki Zaharraren publizitaterako gaitasuna aprobetxatu nahi izan zuten eta, horrela, eraikin hondagarria itxi egiten duten pareta tristeak elkartasunezko kolorez jantzi zituzten.

Gure politikariek ere bere bultzadaxoa eman nahi izan zioten Fronte Polisarioari. Gasteizko Udalak ordezkaritza bat bidali zuen bi egunez Tinduf izeneko saharar kanpamenduan Frontearen 25. urteurrena gogoratze-ko antolatu ziren ekitaldietan parte hartzeko.



Autobus Geltoki Zaharra inguratzen zuten pareta tristeak elkartasunezko kolorez jantzi zituzten

UDABERRIA
elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguai, 9 • Tfnoa: 24 49 65
Abendaño 48 • Tfnoa: 22 34 33
GASTEIZ

MIKO
izozkiak

PARAL
SAN FRANCISCO KANTOLA 4 GASTEIZ
TEL: 276833 01001


Asialarrietik
JARRAKI
BEGITINENNA

Asialarrietik
JARRAKI
BEGITINENNA

Euren azkenengo lana den *Bridges to Babylon* izeneko diska zuzenean aurkezteko asmoz, mundu osoa zeharkatzen ari den The Rolling Stones-en birak Bilbo izango du azkenurren-ko bisita. Rock and rollaren zirkorik handiena eta zaharrena Euskal Herrian.

Ongi etorriak The Rolling Stones!

TESTUA: TXABI ARNAL GIL



denborak the rolling stones-en alde jokatzeko du

Stones-en azkenengo lana, *Bridges to Babylon*, ez dugu inoiz gogokoena izango. Ez dakigu "iraganaldiko edozein garai hobe delako" azaltzen digun esaera sinetsi behar dugun ala ez, baina, jakin badakigu Stones-ei rock and roll zuriari dotore hel diezaioketela erakustea dagokiela, eta honez gain lan hau ondo betetzen ari direla ez dago

Rock
and roll-
ean
jale,
bizi
eta hil?
Stones
hil?

duda-mudan jartzerik. Bai, Stones-en azkenengo ez da diska bikaina. Hala ere, euren belaunaldiko beste musikari askoren lan aspergarri eta pairaezinekin parekatu ondoren, ez dugu inolako zalantzarik: denborak Stones-en alde jokatzeko jarraitzen du.

Jagger-ek, Richards-ek, Jones-ek, Wyman-ek eta Watts-ek, jatorrizko The Rolling Stones, 1963. urtean le-

hendabiziko single-a grabatu zuten: Chuck Berry-ren *Come On* abestia. Rock and Rollaren historiako liburu-rik inportanteena idazteko zegoen.

Rythm and Blues beltzaren soinuak elektrikoago bihurtu, ondoren pop tanta batzuk bota, jarraian izorratzeko gogo handiaz eta abeslaririk handigunengaz nahastu, eta bukatzeko, abesti bikain piloa gehitu. Azkenengo berrogei urtetako gertakizun musikalik erakargarriena izango duzu emaitza: The Rolling Stones.

Ep hobezinetatik lp bikainetara

63. urtetik 68.-era The Rolling Stones-ek single hobezinez bete zuten merkatua. *The Last Time*, *Satisfaction*, *Let's Spend The Night Together*, *Standing In The Shadow*, *19th Nervous Breakdown* edota *Jumpin Jack Flash* kanteke argi eta garbi azaldu zuten hiru minutuko rock-himnoak sortzeko Jagger eta Richards-en erraztasuna. Dena den, Stones-ek diska txikiak baino zerbait gehiago egin nahi omen zuten, berehala ahalgin guztiak lp-etara zuzendu zituzten.

Nahiz eta lehenago diska handi ederrak grabatu (ez dezagun ahaztu 1965.eko *Aftermath*), 1968.etik aurrera Jagger-en mutilek single-ak baztertu zituzten iraupen luzeko lan bikainei ekiteko asmoz. Urte hartantxe, *Beggars Banquet* diskaren eskutik, bide berria era onenaz zabaltu zuten, gaur egun ere aditu askoren ustez Stones-en lanik ederrena eta borobilena denarekin, hain zuzen ere. Hurrengo urtean *Let It Bleed*-ek poz handi berri bat eman zien rockzale guztiei, eta 1970.ean, Jones hildakoa-ren ordezkoko zen Mick Taylor gitarrajole berriarekin, *Get Yer Ya-Ya's Out* maisutasunezko zuzeneko heldu zen.

70. hamarkadaren hasieran Stones-ek kaleratutako lan guztiak bikainak gertatu ziren. Ezpain lodiak eta mihia

MARRAZKIAK
KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK

zurbeltz

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 13 27 20

GASTEIZ

DIBUtec

Landazuri, 7 - Tel. 23 30 01

• Material escolar y de oficina
• PAPER BIRZIKLATUA
• FotoKopiak

kolorez eta Zuri-Beltzean

Arte ederretarako...
behar duzun
guzkia

PAPERTEGI TEKNIKOA

musika

The Rolling Stones-en nahastezinezko sinbolo bilakatuta, *Sticky Fingers* agertu zen, eta, euren karrerako punturik altuenean zeudela zirudienean, *Exile On Main Street* lp bikoitza sortu zuten, soinu latz ederrena bazter guztietara askatuz. Hortxe entzun ditzakegu Stones beltzenak, zikinenak, makarrenak; rock, blues eta country-a inork baino hobeto biltzen zekiten erakusgai. Single-ek lehengo salmentak lortzen ez bazituzten ere, lp-ek, aldiz, maila altueneko rock-a mantentzen zuten.

Eta ekaitzeren ostein, barea; *Goats Head Soup*, *Angie* eta samurtasuna. Dena den, Stones-ek lasaitasunean luzaro bizitzea beti gaitza izan dutenez, *It's Only Rock and Roll (But I Like It)*-ekin ohiko agresibitatera itzuli ziren. Asmo aitortpena eginda zeukaten; Rock and Roll-ean jaio, bizi eta hil? Stones hil?

1975. lan paregabe bat kalean, eta Mick Taylorrek taldeari agur esanez. Garai bateko atek itxi beharrean zeuden Jagger-en mutilak. Ron Wood, oster, prest zegoen bere ametsetak taldean parte hartzeko.

Ronnie Wood

1976. urteko *Black and Blue* diskaren kontrazalak Taylor-ek lagatako lekua nork bete behar zuen adierazi zigun: Ronnie Wood-ek, hain zuzen. Ez zen izen ezezagun bat Stones-ek aukeratuakoa. Wood ospe handiko eta kurrikulum zabaleko gitarrajolea zen:



The Faces-en taldekidea, zenbait abesti Rod Stewart-ekin batera sortu zituen, Eric Clapton-en kolaboratzailea, bakarkako diskaren bat edo beste Jagger-en eta Richards-en laguntzaz... Bai, horixe! Stones-ak ezaugarri zehatzetako gitarrajole baten bila zihoazen, eta berezkotasun horiek guztiak betetzen zituen Ron Wood zen: Rolling-en rock and roll tankeran aritua eta aditua, esperientziaduna, Stones-en antza, eta gainera, laguna. Bai, dudarik gabe, Wood-i zegokion Taylor-ek utzitako lekua betetzea.

The Faceekin aritu izanak, *Black and Blue* eta *Some Girls* diska bikainen bitartez, primerako estreinaldia izan bazuen ere, zuzenean grabaturiko *Love You Live*-k argi utzi zuen, gitarren jokaerari zegokionez, punturen bat galduta zutela Stones-ek. Taylor-en lekua betetzea ez zen batere erreza.

Tirabirak

Ron Wood-i zuzeneko harrigarrien eta erraldoien garaia egokitu zitzaion, eta baita Richards eta Jagger-en arteko tirabira handienetako egunak ere. *Emotional Rescue* apala, *Tattoo You* ederra eta *Undercover* ulertezina kale-ratu ondoren, *Dirty Works* ailegatu zen, eta honekin batera gatazkak. Jagger-ek, bakarlari lanetan murgildurik, ez omen zuen Stones-ekin hamaikagarren aldiz karretera atera nahi izan, erabaki honek Richards

Bridges
to
Babylon,
bere
azken
diskoa,
Bilbon
aurkeztu
egingo
dugutena



haserretu zuelarik. Ondorioa, denok dakiguna: hasteko, diska ederra izateko bidetik zebilena *Dirty Work* lan ahul bihurtu zen; gero, Stones bost urte garajea apartatuta; eta, azkenik, Jagger-en zein Richards-en bakarkako lanen (nahiz eta gitarrajolearen lehenengoa eta abeslariaren hirugarrena oso onak izan) arrakasta urria.

1989.ean, batek daki zergatik, iraganaldiko tirabirak gaindituta zeuzkatelakoan, Stones-ek batu eta diska berri bat grabatzeko gogoia agertu zuten. Eraitza 80. hamarkadako azken urte hartako *Steel Wheels* izeneko diska berria, eta munduan zeharreko bira bat izan zen. *Steel Wheels* honek Stones-ak lehengo lan bikainetara hurbil-

du zituen arren, bere benetazko garrantzia berriz ere elkarrekin ikustean zegoen. Diska berria eta bira handiago bat. Berrogei urte baino gehiagoko mutil hauek rock and roll-aren etxera bizitzera bueltatuak ziren, (luxu handieneko rock and roll-aren etxera, jakina).

Flash Point zuzeneko 1991.ean, *Woodoo Lounge* izugarria hiru urte geroago, *Stripped* ia-oinarrizkoa 1996.ean, eta orain, The Rolling Stones Euskal Herrira hurbiltzearen, beti oroimenen izango dugun *Bridges to Babylon*.

Egun, duela hogeita hamabost urte bezalaxe: *It's Only Rock And Roll, But I Like It*.

1963
urtean
lehen
singlea
grabatu
zuten:
chuck



Berry-
ren
Come on
abestia



izena eman
æk
euskarategi eta
barnetegietan!

eduskara
BAGARA!

Peru, 8
22 60 50
Jose
Mardones
kalea, 8
26 35 40
Arana, 30
25 24 00

EL
BAR
Kutxi

eguneko

205
guztira



gaurkoak eta betikoak

rock'n'rollaren historia formateo berrian



IZENBURUA: VOODOO LOUNGE.

TALDEA: THE ROLLING STONES.

DISKETXEA: VIRGIN.

URTEA: 1994.

Stones-en diskografia osotik aukeratu dugun diska zein den ikus-terakoan, lagun bat baino gehiago harrituta geldituko zaigu. Hala ere, bi arrazoi nagusi izan ditugu orain lau urte kaleratutako *Voodoo Lounge* izeneko lan honen alde jotzeko: alde batetik, diska honek Rolling-en historian leku aipagarri batean egotea merezi duelako; eta bestetik, diska honi esker, Jagger-en taldeak mendearen bukaera oraindik bizirik eta sendo jarraitzen zuela ohartu ginen.

Voodoo Lounge gure belarrietara heldu zenean diska ontzat hartu genuen. Besterik ez, Stones-en diska onez beterik dugun zerrenda luze hori ludituko zuen beste lan bat, hain zuzen. Baina, orain, lau urte pasa ondoren, gure iritzia aldatu da, are gehiago Stones-en azkenengo lana, *Bridges to Babylon* izeneko, entzun genuenetik,

zeren eta azken hau ona dela uste badugu, zer nolako kalifikazioa eman geniezaioke askoz gogokoa-gau daukagun *Voodoo Lounge*-ri?

Hori horrela, Bilboko eszenatokian Rolling-ak gure artean ditugunean, abesti klasikoekin batera *Voodoo Lounge*-ren zenbait kanta entzutea eskertuko dugu. Baita *Love Is Strong* edota *I Go Wild* ere, merezita baitute zuzenetako momentu beroenetan egotea. *Moon Is Up*-ek edota *New Faces*-ek, aldiz, ez dute inolako problemarik izan behar agerraldiko unerik ez-tienetan esku hartzeko. Azken finean, orain lau urte Stones-ek eskaini ziguten *Voodoo Lounge* hau euren betiko rock and roll zikinenaz, eta une lasai ederrenaz ere gainezka dago.

Ea berrogeita hamar urterekin txapela kentzeko moduko rock and roll-a egin al daitekeen? Hona hemen erantzuna.

IZENBURUA: ARDI LARRUZ.

TALDEA: LATZEN.

DISKETXEA: OIHUKA.

URTEA: 1998.



kaleraturiko aurreneko single-a eta argi erakusten digu Latzenekoen estilo berriaren norabidea. Bateria zoragarri baten azpian, bi kitarrek eta baxuak erritmo aldaketekin jotzen dute uneoro. Aitor Uriarte

euskal musikako ahotsik onenetakoen artean behin-betiko kokatzeko ere balioko du Latzenen bigarren lan honek. Iazko udan Aitor, Joxe Mari, Iker eta Gorkaren kontzertuak animatu zituzten neskatilek, ordea, ez dute *Laztanaren* oinordekorik aurkituko, *Ardi Larruz* ez baitago melodia goxoentzako tokirik. 98ko diskoa ote? Baliteke!

Kontzientzia ala infernua debute-ko lanean baino erritmo gordi-nagoak darabiltzate Oñatikoei

Oihuka zigituarekin argitaratzen duten bigarren diskoan, agian soinu pertsonalagoa bilatu nahian. Hamairu kanta dira *Ardi larruz* izenburupean ageri zaizkigunak; hamabi hobe esanik, horietako baten *Remixa* ere oparitzen baitigute. Kaki Arkarazo izan da *Itsutu* abestia birmoldatu duena eta esan beharra dago atseginez entzuten dela. *Itsutu* bera da

beste batzuk

HARAKINA

sasoi ilunak

ATLANTI



Oso landua, kalitate handikoa, borobila. Horrela deskriba daiteke Sasoi Ilunak taldeak kaleratutakko hirugarren lana, bai musika aldetik baita abestien hizkiei dagokien ere. Izan ere azken bost urteak isilik baina lanean eman ondoren nabaria da taldeak lortu duen heldutasuna.

Gitarra erritmikoaren sarrerarekin dentsitatea irabazi du urtuellako boskotearen musikak eta konposaketekin goi maila lortu dute orohar. Hizkiei erreparatuz *Harakina* lanaren hamabost kantuetan igartzen da Sasoiaren ezaugarrian bilakatu den munduarekiko ikuspegi ezkorra; sexua, kaosa eta burutapenei buruzko erreferentzia sotil bezain zuzen eta gogorrekina.

Distortsioaren garai honetan soinu akustikoagoen aldeko apustua egitea ez da erraza, baina hori da Sasoi Ilunak beste behin ere maisukiro egin duena.

ETZAKIT

etzakit

ATLANTI



Hernanitik datorren talde honek lehen diskoa argitaratu berri du hainbat urtetan plazaz plaza ibili ondoren. Erritmo ezberdinak nahastu dituzte lan honetan, oinarrian hartutako trikiti-soinuari rock, salsa eta kantu geldoak erantsiz maisukiro. Hamabi kantu guztira eta zein zein baino dantzagarriago; horixe da Etzakit taldearen eskaintza.

Eta ez da gutxi gorputza alde batera eta bestera mugitzeko, dela *Mari Inaxi*-ren arin arinarekin, dela *Zergatik ez* katuaren zurrumbilo beroarekin edo *Zu galdua* dultze-meneoarekin. Eta nork ez du ezagutzen garai honetan *Gurekin* abestia? Gainean dugun udako festetan zalantzarik gabe protagonista izango dugu Etzakit, bere musikarekin parrandarako prest.

No hay agua dugu **KAOS**

ETILIKO Aguraingo taldearen aurreneko CDA. Punk-rock melodikoa darabilte, baina zenbaitetan kitarrek musika

gogorragoan murgiltzen gaituzte. Parabellum, MCD edota RIP bezalako taldeen jarraitzaileek gustura hartuko dute **K.E.**-ren agerpena. La Polla da Aguraingoek begikoen izan duten taldea, eta hori ere nabaria da *No hay agua*-n.



Orain, aldiz, bere lehen diskoa kaleratu du **DRAKKAR** taldeak, beste taldeen bertsoak eta eurek sortu abestiren bat ere jasotzen dituen. *Bailables y rockandroll* diskoa sortzeko Carlos, Kintxo, Koldo, Jose eta Javik hainbat kolaborazio izan

Berbena talde gisa ezaguna dugu, horrela aritu izan baitira azken 18 urteetan (hasieran Bereberki izenpean).

dituzte, besteak beste Javier Lekuona (akordeoian) eta Bingen Mendizabalena (bibolinean).

BETAGARRI ere badugu egunotan diskoa aurkeztuko duten talde arabarren artean. Bateria berriarekin eta eskeini dituzten kontzertu anitzetan hartutako esperientziarekin, bigarren disko hau erakargarri datorkigu. **BETAGARRI**k adostuta dituen kontzertuen artean abuztuaren 5ean Brulleria plazan eskeiniko dutena dago, hiriko Jai egitarauaren barnean.

AGENDA

ERAKUSKETAK

Oihanederra aretoa. Pirinioak berraurkitu izenpean Montehermoso Kulturuneke Oihanederra aretoak (jaintzina-ko ur biltegia) Pirinio mendien inguruko erakusketak harrigarri jasotzen du. Pirinio-tako Lan Elkarte, Eusko Jaurilantza, La Caixa Fundazioa eta Gasteizko Udala dira erakusketaren antolatzaile eta laguntzaileak.

maiatzaren 26tik ekainaren 28ra

Montehermosoko lehenengo solairua. Montehermoso Kulturunean ere Europa Batasunari buruzko erakusketak da gozagarri egunotan.

maiatzaren 19tik ekainaren 26ra

Montehermoso Kulturunea

Frai Zacarias Martinez kalea, 2

945 16 12 68 / 16 18 19 / 16 13 39

LEHIAKETAK

Sagitario Literatur-Saria.

Europako mendebaldera edo urrunago bidaiatu dutenentzat literatur saria antolatzen du Aramaio Udalak. Bidaiariak beren oporaldia izango dute kontagai: 100.000 pezetako sari bana dago euskara zein gaztelarazko lanik nobelarentzat.

Aramaio Udaletxea, 01160

Aramaio, [945 44 50 16]

San Prudentzio XXIX Argazki

Lehiaketa. Arabako Argazki Elkarteak antolatuta eta Arabako Foru Aldundiko Kultura Saila eta Euskadiko Kutzak lagunduta, Araban egiten den argazkilaritza lehiaketarik garrantzitsuenak da. Gai eta formato libreak. Lanak aurkezteko epea ekainaren 30ean amaitzen da.

Arabako Argazki Elkarteak

573 Posta Kutxatila 01008 Gasteiz

M U S I K A

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa eta Donostiako Orfeoia. Miguel Angel Gomez

Martinez zuzendaritzapean EQSk eta Donostiako Orfeoia Beethovenen Bederatzigarren Sinfonia interpretatuko dute, besteak beste, Maite Arruabarrena eta Alfonso Etxebarria kantari solistekin. Hauxe da Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren denboraldiko azken emanaldia.

Ekainak 12, 20:00etan.

Principal Antzokia (16 10 45)

500, 400 eta 300 pezeta.

Udal Folklore Akademia.

Principalen ere eta ekainaren 14an, igandea, Udal Folklore Akademiako kideek ikasturtean zehar ikasi dutena erakutsiko digute, urte amaierako audizioan.

Ekainak 14, 12:00etan.

Luis Aranburu. Udal Musika Eskolako ikasleek, berriz, beranduago amaitzen dute ikasturtea. Beraien audizioa ekainaren 30ean, astearte, izango da. Principalen ere.

Ekainak 30, 20:30etan.

Principal Antzokia (16 10 45)

Deabruak Teilatuan. Olerki eta musika nahastean dituen emanaldia da hau. Koldo Izagirre eta Iñigo Aranbarri protagonita direlarik.

Ekainak 4, 20:00etan.

Florida Kultur Etxea

Amaia Zubiria. Hasiera batean maiatzaren 30erako deituta bazegoen, ekainaren 11an izango da Amaia Zubiriaren Mami Xuri azken lanaren aurkezpena Gasteizen.

Ekaina 11, 20:00etan.

Florida Kultur Etxea



ARABA EUSKARAZ 98 ARAIA-ZALDUONDO EKAINAK 7

IBILALDIAK

Hiru handiak. Manuel Iradier

Txangolari Elkarteak XI. Hiru Handiak ibilaldia antolatzen du. Berauk Gorbea, Anboto eta Alzkori mendiak egitea du helburu. Aurtengo edizioa ekainaren 13an egingo da. Bero laburretan informazio gehiago eskura dezakezue.

Manuel Iradier Txangolari Elkarteak

Pintore kalea, 15

Telefonoa: 945 28 65 32

EKAINEKO gomendapena

UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA

Miarritze: uztailak 6 - 11 Iruña: uztailak 20 31

UEUK 26. udako ikastaroak antolatu ditu aurtan. Ohi bezala, Miarritzen eta Iruñan ospatuko dira eta unibertsitate zein bestelako ikasketetan ari direnentzako oso baliagarriak gerta daitezke. Izena emateko epeak maiatzaren 25etik ekainaren 19ra (Miarritzerako) eta ekainaren 1etik 26ra (Iruñerako) dira. Informazio gehiago eskuratzeko (halaber, zein ikastaro eskeiniko diren...) honako helbidera idatzi edota telefonotara dei dezakezue:

MIARRITZE: uztailak 6-11
Concha Jenerala, 25. 4.
94 421 71 45 edo 94 421 46 79

Bilbo

EL PARRAL TABERNAREN ESKEINTZA

ekainak 2, asteartea.

Jamila

ekainak 11, osteguna.

Cubanakhan

ekainak 16, asteartea.

B-Quier

ekainak 23, asteartea.

Harakajun

ekainak 30, asteartea.

Trokolo teatro, ipuin

kontalaria (euskaraz)

ekitaldi gutiak arratsaldeko 20:00etatik aurrera



HEGOALDE
euskaltegia.

ZURE EGOITZA BERRIA
Jose Lejarreta 9 behea
tfnoa 28 41 96
01003 GASTEIZ

matrikula zaitez!

IPARRA
taberna

Giro ezin hobea!

Florida, 80
Tfnoa. 26 77 81

GASTEIZ

J A T E T X E A



Aitzogile (KUTXI), 26 tfnoa: 28 81 47
GASTEIZ

EUSKAL LABELA
LASAGABASTER
harategia eta urdaitegia

Gasteizko
haragitegirik zaharrena

Errege atea, 24
Tfnoa: 25 56 90 GASTEIZ



OKOA!
arropa eta osagarriak
NEMEN DUZU ESPERO ZENUENA!

Pintore kalea, 23 • Tel. 28 18 38

27

guz gasteiz

piti pata

TESTUA: ITZIAR URIARTE
ARGAZKIAK: EDORTA SANZ

txikiak

Sin!, sin!

Ezetz asmatu, jan eta lo asko egiteaz gain, nola igarotzen duen denbora bederatzi hilabete-ko neska maitagarri eta begi urdineko polit honek? Ba... ez duzue zertan asko pentsatu, txintxirrin batekin hain zuzen. Sehaskan edota bere amak emandako ibilaldi bukaezine-tan, norbaitek xeraren bat edo beste eskeintzen ez dionean, txintxirrinarekin gora eta behe-ra dabil musika-jole hasi berri baten antzera: Ssss!, Ssss!

Laura
goseak
jota
dagoe-
nean
eta
garra-
siek
fruitu-

rik jasotzen ez badute, etsi egi-ten du eta panpin biguna kiz-kurtzen hasten da: Nam!, Nam!



Ipaina:

ZEBRAK BERE
ISATSA
GALDU ZUEN

Behin batean zebrak

esan zuen: "ikusiko dut nire ipurdia..., ...oi ze polita den nire ipurdia!..., ai ene!, nire isatsa ez dago. Nire isatsa!. Bilatzera joan behar dut berehala. Lehenengo baserri batera joango naiz, ea hor aurkitzen dudan. Asko ibili eta gero aurkitu zuen eta hemendik aurrera ez zuen isatsa galdu.

Lara, non zaude?

Olabideko Leirek, beste ume askok bezalaxe, panpinak maite ditu. Baina ez Nancy edo antzekorik, ez!, bere pan-pin gustokoena Lara da. Ez duzuela ezagutzen? Ez kezka-tu, Larak, bere modura kasik, zortzi urte ditu eta Leirek noiz-behinka beste pan-pinei soi-nekoak kendu eta berari jan-tzi ohi diz-kio; beraz, Lara ez dago sekulan modatik kanpo, itxurak urteen joan-etorriak soberan islatuz.



Uxue,
7 urte.
Barrutia Ikastola.

ba al zenekien



Futbolaren
hasierak

Futbola (ingelesez football) XIX. mende-an asmatu zen, Inga-laterrako eskoletan. Bai, ikasle ingelesek asmatu zuten gaur egun hain ezagu-na den kirola, gure Ikastole-tan hainbat joko asmatzen dituzuen bezala. Edozein modutan, bakoitzak nahi zuen bezala jokatzeko zuzenez, Futbol

Elkarteak 1.863. urtean lehenengo arauak finkatu zituen.

Euskal Herrira beranduago heldu zen kirol hau. Dakigunez, 1.894. urtean Bilbon jokatu zen futbol partidu bat. Beno, ez zen parti-du bat izan, orduan ez baitzegoen futbol talderik.

Lehenbiziko euskal taldea Bilbo-ko Athletic Club izan zen zen, duela justu 100 urte sortu zena.

finkatu: zehaztu, oinarritu, oinarriak jarri
antzerako: antza duen gertaera, antzeko

zabaltu: inauguratu, hasiera eman

elkaina



*Pilota gora,
pilota behera*

Hementxe dugu
euskal musi-
kazale
amorratu
bat,
baina
ez da



GAZTETXOAK, 13-17 urte

entzu-
teare-
kin baka-
rrik kon-
tentatzen, eta
txistua zein trikitixa

ezin hobe jotzen du.
Asteburuetan noizean behin
praktikatzen duen beste zale-
tasun bat eskupilota da. Bai,
ondo entzun duzue, eskupilo-
ta! Kirol hau praktikatzen
duten neskak gutxi badira
ere, ez da arraroa izan behar.
Ea neska gehiago janzten
diren kirol honetan, emaku-
mekoen artean ere berau
zabal dadin.



erlantz rega



aaron benitez



eristina

Ibai Campo



ander churruca



Datorren hilabeteotan zure
marrazkia argitaratua ikusi nahi
baduzue bidaliguzue honako helbidera:

Geu Gasteiz aldizkaria
Pedro Arga kalea 2. ja.



Ikusten duzuen lez, inge-
lezko izena du Bilboko tal-
deak. Antzerako zerbait
gertatu zen Gasteizen ere,
mende hasierako talde
garrantzitsuenak hauek
izan baiziren: Sporting
Club, Sport Friends Club
eta New Club. Horietako
batek, Sport Friends Clubek,
1.921ean izena aldatu eta Deporti-

vo Alaves izena hartu zuen. Bai,
hala da. Gure Deportivo ez da beti

Alaves izan. Mendizorro-
tzako zelaia ere ez da
beti Mendizorrotza izan.
Hasieran Cervantes
pasealekuko zelaia zen,
baina 1923. urteko abuz-
tuan Mendizorrotza
zabaldu zen. Ordu-
tik hona, hainbat berrikun-
tza izan ditu, baina zelaia ez da
hasierako tokitik mugitu.

PUBLIZITATEA EGITEKO MODUAK ETA MODUAK

Bada enpresa bat, Durangon kokatua, beste guztiengandik gailentzen dena, bere publizitatea kulturean, euskararen, kirolan eta abarreko kontaezin ahala ekintzatan agertzen delako. BAQUE etxeaz ari gara. Emilio Baqué Delás jauna- rekin gaude (Cafés Baque enpresako Zuzendaria)

Galdera: Emilio, euskararen aldeko topaketa eta bilgune handi guztietan ikusten zaituztet -Kilometroak, Ibilaldia, Herri Urrats...-. Zergatik hori? Euskara maite duzelako ala errentagarritasunagatik?

Emilio: Egia esateko, hasiera batean laguntza bat ematea beste asmorik ez genuen, euskarari diru laguntza ematea. Baina, honelako hainbeste eta hainbeste ekintzatan egon ondoren, azkenerako, sinpa- tiagatik edo esker onez, errentagarri ere badela uste dugu.

G. Zentzu honetan ze nolako beste ardurak dituzue?

E. Euskarazko argitalpenen literatura sarietan eskuhartu izan dugu, IRUÑA Saria. Urtero Durangoaldeko Antzerki saria eman ohi dugu, abesbatzen hainbat disko lagundu eta argitaratu ditugu eta Euskal Herriko Historiari buruzko liburuak ere argitaratu izan ditugu.

G. Bai telebistan eta bai kalean, BAQUE kamiseta eta txandal ugari ikusi ohi dugu...

E. Hala da, Saskibaloian, Txirrindularitzan eta Pilotan batez ere. Orain dela 25, 20 eta 12 urte hasi ginen, batean eta bestean. Atletismoan, Arraunean eta beste kirol batzuetan ere aritzen gara geure ahalegintxoak jartzen; baina, hori bai, beti zaletasunezko eta oinarriko kirola da guk bultzatzen duguna.



Emilio Baqué,
Cafés BAQUEko
Zuzendari Gerentea.

G. Saltzeko garaian Euskara asko erabiltzen duzue. Errenta- garria al da?

E. Beti ez ditugu gauzak errentagarritasun hutsagatik egiten. Motibazio ugari dira gehien bat euskal giroan ibiltzera eta mezua euskaraz ematera bultzatzen gaituz- tenak. Azkenerako denak du bere ordaina, nahiz eta iristen zertxobait denbora gehiago behar izan.

Cafés Baqué gaur gure aldizkarian azaltzea, beste enpresa batzuentzat pizgarri izatea nahi genuke.

Zabaldu bedi erredua.

LARRAITZ ODRIUZOLA

kide **APAINDURA**
Zerkabarren (Cercas), 27 Tfnoa: 14 41 95 GASTEIZ

MANOLO EL DEL BOMBO ABERTZALE ESPAINIAZALEA ETA HERRIGINTZARI BURUZ

Ion Maia / bertsolaria

spainiaren jarraitzaile bat baino gehiago izango da gure artean, seguraski, gure lagunaren artean eta artikuluhonon irakurle artean. Futbolaz ari naiz, baina baita Espainiaz ere. Edozein aitzakik balio du Espainiaren jarraitzaile bihurtzeko, Espainiar zaletasuna zuzitzeko: jokalaria euskaldunak dituela, gertukoena dela, Clemente *euskalduna* dela entrenatzailea..... Bai, bai, betikoa, azken finean, abertzale askori, barruan daraman espainolitoa ateratzen zaio *la furia española* pantailan ikusten duenean. Berotu egiten dira Espainiaren, urduri jarri bere jokaldi arriskutsuekin, gozatu garaipenarekin... Abertzale asko eta asko, ezkerreko zein eskuineko (nik bat baino gehiago ezagutzen dut) espainiazaleak dira, eta gainera, naturaltasunez onartzen dute, aitortzearen ausardiak berak, nortasun handiagoa ematen dielakoan edo!, errepresioa eta herri baten suntsipena porraz eta pistolaz bakarrik eragingo balitz bezala! Mesedez.....

Gaur egungo European ez dago fubolarena baino fenomeno sozial garrantzitsuagorik: futbolak mugimendu, giza talde, partidu, ideologia, sexo, maila sozial eta ekonomiko mota guztietako jendea batzen du astero, milioika, futbol zelaietan eta telebista aurrean. Erabat gizarteratua dagoen fenomeno da, negozioa eta pasioa, eta mende honetako gertakaririk garrantzitsuenetako bat bilakatu dela egia ukazina da.

Lagun batek esan zidan eta halaxe da: soziologo batek, aztertu beharreko gertakaririk izango badu, hori futbola da. Beraz, ez da komeni futbolaren aurrean begiak ixtea, egongo ez balitz bezala, besterik gabe. Oso jarrera eskasa eta inuzentea da, bestaldetik, sinpatiaz edo, espainiaren jarraitzaile eta zaletua izatea. Bi jarrera horiek ez dute kontuan hartzen (praktikan bederen) futbolaren erabilpena (eta erabilgarritasuna, naziozintzarako adibidez), garrantzi soziala eta kulturala.

Nola da posible, abertzalea den futbolzale bat, espainiako selekzioaren jarraitzaile izatea, espainia eta espainiar futbol federazioa izanik euskal selekzio bat eragozten dutenak? Nola onar dezake lotsatu gabe, abertzale batek, futbolaren bidez kolonizatzen gaituzten haien alde dagoela? Futbola, gure herriaren eskubi-deak baino lehenago jartzen al du jende horrek?

Sinpatia, abertzaletasunaren gainetik?

Nola hel daiteke abertzale bat, bere herriko kulturaren, hizkuntzaren, nortasunaren edo selekzioaren aurkako ordezkariekin identifikatzera? Gooooooooool bakoitzean *Manolo el del bonborekin* batera saltatzeko prest al daude?

Bai.

Eta futbolaz paso egiten dutenek, aurrekoen parean jarri nahi ez baditut ere, garrantzi handidun gertakari baten aurrean begiak ixten dituzte; eta hobe paso egin baino, gure alde erabiltzen saiatzen bagara, futbola egon badago eta.

Bukatzeko, eta lasaiago nago jada, pare bat gauza gehitu nahi nituzke:

1- Athletikek, taldea soilik jokalaria euskal herritarrez (nafarrak, arabarrak, lapurtarrak, bizkaitarrak, gipuzkoarrak denak, salpuespenen bat izan ezik...) osatzeko duen filosofiari onuragarria deritzot, euskal nortasunaren eraikuntzarako eta propaganda-

2- Frantziar estatuan ospatzear diren mundialetan, espainiako selekzioak irabaztea nahi duen edozein abertzaleri-euskaltzaleri, orri hauetan bere aukera eta erabakia arrazoitzeko eskatu nahi nioke, eta nahi izanez gero, bere jarrera nirearekin alderatuko genukeen jende aurreko eztabaida bat burutzeko prest nago.

Ez dit inolako lotsarik sortarazten esan dudanak, baina seguraski, nire gonbidapenak ez du erantzunik jasoko. Lotsagatik edo...



ALEX BADILLO



Errege
Atea
9

GASTEIZ



Zaldiaran Plaza, 10

22 65 64
GASTEIZ

JANTZI ETA
OPARIAK

Aiztogile (KUTXI), 27
Tfnoa: 26 07 10
GASTEIZ



umorea
Txeroki
IÑIGO SARASOLA



ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA



Andaluzia kalea 13
☎ 28 79 42
GASTEIZ



SANTI
HARATEGIA
URDAITEGIA

Paraguay kalea 17
☎ 27 07 90
GASTEIZ

XABIER
AIZPEOLEA
HARATEGIA



FLORIDA AZOKA 2 ETA 3
☎ 13 24 48
ABASTOS AZOKA 2 ETA 3
☎ 26 78 97



JOSEBA
HARATEGIA

Paraguay merkatua
10 El Pilar auzoa
☎ 25 66 89
GASTEIZ



**gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak**



Floridako altxorra !

35



altzariak • apaindurak
Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59
GASTEIZ

gen gasteiz

ALAVES OROIMENEAN BIZIRIK

Asier Iriondo / bertsolaria

so oker ez banago eta ez dut uste oso oker nagoenik, ekainean zaudete. Zaudete diot maiatz hasieran ari naizelako iritzi artikulu hau idazten. Beraz, niretzat ez da ekaina. Ekaineko alean ateratzeko hala egin behar omen nuen eta hala egin dut, alegia, maiatz hasieran idatzi. Hilabeteko abantaila duzue nire aldean. Nire oroimenak hilabeteko atzerapena du bere funtzionamenduan. Gogoan dut Borrel eta Almuniaren arteko hauteskunde itxurako haiek egin zituztenean (zuek agian oso urrun izango duzue baina nik ez) egunkari batek Almunia irabazi zuela argitaratu zuen. Emaiza gauean berandu esan zuten eta faborito argia bera zenez arriskatu egin zen eta gaizki atera zitzaion. Neu ere, antzeko arriskuan barneratzera noa. Idazten ari naizen une honetan Alaves lehendabizikoa da bigarren mailan; bigarren eta hirugarren diren Las Palmas eta Estremadura lau puntu atzerago ditu; hiru partidu falta dira liga amaierarako eta R.Vallecano, Villarreal eta Toledoren aurka jokatuko ditu partiduak. Lehenengoa eta azkena etxean eta Villarrealen aurka-koa kanpoan. Hiru partidu hauetan zer gertatu(ko) den iragartzen saiatuko naiz.

R.Vallecanoren aurkako partidua

Urduri samar atera dira zelaira. Badakite Estremadurak edo Las Palmasek galduz gero eta eurek irabazi igoera ziurtatuko dutela eta pisu astuna da eurentzat. Bestalde, galduta ere lehenbiziko postuan leudeke oraindik.

Irabazten hasi dira baina oso urduri daude. R.Vallecanokoek, aldiz, ez dute ezer jokoan. Gora begira ez dute aukerarik eta behera begira arriskurik ez. Lasaitasun horrek jokuan ere patxara eman die. Gola sartu dute eta neurketa berdindu.

Baina horrekin nahikoa ez eta jokoz kanpo izan zitekeen beste jokaldi batean bigarrena egin du R.Vallecanok. Honela bukatu da partidua. Estremadurak eta Las Palmasek irabazi egin dute.

Villarrealen aurka

Estremadura eta Las Palmas puntu bat atzerago ditu. Ez dauka galtzerik. Ezin du besteen hutsaren zain egon. Urduri daude. Oso urduri daude. Villarrealakoek aurreko partidua galdu egin zuten eta promozioa ziurtatu nahi dute. Joku bikaina erakutsi dute eta Alavesi hiru gol egin dizkiote. Bitxikeria dirudien arren hirurak buruz egindakoak izan dira. Estremadurak bere partidua berdindu egin du eta Las Palmasek irabazi. Alaves hirugarren postura pasa da. Hala ere, Estremaduraren puntu kopuru bera du.

Toledo

Toledok Mendizorrotzan jai izan du. Alavesek urduritasuna alde batera utzi eta bost gol egin dizkio. Azkenengo minutuan berak ere jaso du baina ez du garrantzirik. Alavesekoek, alabaina, beste emaitzen zain egon behar dute zuzenean igoko diren jakiteko eta zelai erdian daude irratiak eskuetan. Ikusleek ere, ez dute alde egin. Las Palmasek irabazi egin du eta

Estremadurak... lasai!! Estremadurak husna berdindu baitu. Alaves bigarren postuan dago eta lehenbiziko mailara igoko da. Ondorioz, futbola atsegin ez dugunok ere jesukristona harrapatu dugu.

Hemen ez dago trukorik. Zuek zarete lekuko. Barreneko zerbaitek gauzak horrela gertatu(ko) direla esaten dit behin eta berriro eta idatzi hau da froga. Galde bestela Esti Breñasi artikulua noiz eman nion. Harrituta geratu zarete, ez da hala?



ALEX BADILLO



ARTEPAN

Artisau
Okindegia eta Goxotegia

Jesús Guridi, 2 • Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ





ONDOKOETAN BADAGO EUSKARAZ DAKIEN LANGILERIK

UDAL-BULEGOAK ZERBITZUA	HELBIDEA	TFNOA.
Udaletxea		
Argibideak eta Erregistroa	Espainia plaza, 1	16 11 88
Emakumeentzako Zerbitzua	Espainia plaza, 1	16 13 45
Errolda	Espainia plaza, 1	16 11 06
Euskara Zerbitzua	Espainia plaza, 1	16 15 22
Funtzio Publikoa	Espainia plaza, 1	16 11 41
Gazteen Argibide Bulegoa	Espainia plaza, 1	16 13 30
Idazkaritza	Espainia plaza, 1	16 13 20
Prensa Bulegoa	Espainia plaza, 1	16 13 37
Zerbitzu Orokorak	Espainia plaza, 1	16 13 08
Udala (Dato kalea)	Borondatezko Diru Bilketa Zergen Gestioa	Eduardo Dato kalea, 11 Eduardo Dato kalea, 11
		16 16 68 16 11 33
Udala (San Prudentzio kalea)	Gizartegiuntza Hiri Hobekuntza Ingurugiroa	San Prudentzio kalea, 30 San Prudentzio kalea, 30 San Prudentzio kalea, 30
		16 13 44 16 13 01 16 11 20
Udal artxiboa	Argibideak	Unibertsitateko Ibilbidea, 1
		16 14 99
Etxebizitza eta Hiri Berrikuntzarako Udal Eragintegia	Argibideak	Espainia plaza, 1
		16 12 88
Kultura	Argibideak	Goiuri Jauregia (Villa Suso)
		16 12 70
Hezkuntza	Argibideak	Frai Zacarias kalea
		16 12 16
Ekonomi Sustapena		Frai Zacarias kalea
		16 12 11 16 13 48
Gizarte Etxeak	Ariznabarra Hegoalde Iparralde Judimendi Lakua Landatxo	Ariznabarra kalea, 19 Alberto Schommer kalea, z/g Zuberoa plaza, z/g Urriaren Hamabiaren kalea, z/g Etxanobetarren zidorra, z/g Santa Maria kalea, 4
		13 36 91 16 18 80 16 17 60 16 17 40 17 17 81 16 16 82
Europa gizarte-etxea	Argibideak Biltzar eta Turismo Bulegoa Kontzientzia Eragozpena	Gasteiz hiribidea, 85 Gasteiz hiribidea, 85 Gasteiz hiribidea, 85
		16 12 31 16 12 61 16 36 91

ARABA EUSKARAZ 98



ARAIA-ZALDUONDO
EKAINAK 7



ARABAEUSKARAZ
98

PITTINKA

orain dugu garaia